

EAEKO GOI-MAILAKO EMAKUMEZKO KIROLARIEN EGOERAREN AZTERKETA GENERO IKUSPUNTUTIK



KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

BAT
BASQUE TEAM

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2010

©

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura saila

Egileak

Ainhoa Azurmendi Echeagaray eta Juan M. Murua
(www.aventoconsultoria.com)

Internet

www.euskadi.net

Edita:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia -Sansebastián, 1 - 01010 Vitoria-gasteiz

AURKIBIDEA

1. Sarrera	5
2. Hurbilketa teorikoa	8
3. Fundación Euskadi Kirola Fundazioa (Basque Team)	13
4. Helburua eta Metodologia.....	15
4.1 Lagina	16
4.2 Prozedura	19
5. Emaitzak	22
5.1 Kirolarien profila.....	22
5.2 Kirol arloko iragana: familia, lagunak eta kirol ibilbidea.....	27
5.3 Gaur eguna: goi-mailako kirolaria izatea.....	37
5.4 Kirol egokitua	55
6. Eztabaida.....	58
7. Ondorioak	70
8. Ekintza-neurriak	72
9. Bibliografia	75

TAULA ETA IRUDIEN AURKIBIDEA

TAULAK

1. 2009 urtean <i>Fundazioak</i> beka emandako kirolariak	17
2. 2009 urtean <i>Fundazioak</i> beka emandako kirol egokituko kirolariak	18
3. Ikerketa burutze aldera elkarriketatutako Fundazioko emakume kirolariak	20
4. Prozedura metodologikoaren laburpena	21
5. <i>Fundazioko</i> kirolarien batezbesteko adina eta adin-tartea	23
6. <i>Fundazioko</i> kirolarien lan-jarduera	24
7. Kirolarien familia-egitura	26
8. Kirola egiten hasteko arrazoiak	28
9. Goi-mailako kirolari izatetik gehien atsegin dutena	44
10. Goi-mailako kirolaria izatetik gutxien atsegin dutena	45
11. Etorkizunean kirolarekin zerikusia duen lanbideren bat eduki nahiko luketen emakume eta gizonak, ehunekotan	53

IRUDIAK

1. Galdera-sortak erantzutean <i>Fundazioko</i> kirolarien parte-hartzea, sexuaren arabera	22
2. <i>Fundazioko</i> kirolarien ikasketa-maila	23
3. <i>Fundazioko</i> kirolarien lan-jarduera	24
4. Emakume eta gizonen kontratu mota	25
5. Kirolarien familia-egitura	26
6. Kirolari bakoitza zein kirolean hasi zen	27
7. Kirola egiten hasteko arrazoiak	29
8. Klub aldaketa kirol ibilbidean zehar	30
9. Kirolariak klubez aldatzeko arrazoiak	30
10. Kirolariak egiten zuten etxeko lanen kopurua	31
11. Nerabezaroan, adiskideek kirola egiten zuten	32
12. Nerabezaroan, kirola eta ikasketak uztartzeko arazoak	33
13. Kirola egiten hastean izaten diren oztopoak	35
14. Lehiaketetarako bidaiak estres iturri dira? Iritzia	37
15. Goi-mailako kirolari izatea eta ikasketak uztartzea arazo bat da? Iritzia.....	38

16. Lesio larriak izan dituzten kirolariak, ehunekotan.....	41
17. Lesioak iraun bitarteko ardura nagusia	42
18. Emakumezko ala gizonezko goi-mailako kirolari izatea, berdina ote da? Iritzia	45
19. <i>Fundazioak</i> emandako beka nahikoa ote da? Iritzia	47
20. Babeslea aurkitzeko arazoak	48
21. Amatasuna arazo bat ak da emakumezko goi-mailako kirolarientzat? Iritzia	49

1. SARRERA

Badira hainbat urte, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritza kirol esparru guztietan emakumezkoen parte hartzea bultzatzeko lanetan ari dena¹. Emakumezkoek kirolean lekua izateko konpromiso hau, Eusko Jaurlaritzak arlo honetan garatu duen araudi eta instituzioetako agirietan ere argi ageri da. Horrela izanik, 14/1998 Legeak, ekainaren 11koa, Euskadiko Kirolarenak, oinarri nagusietan, botere publikoak *“kirol arloko maila guztietan emakumezkoen integrazioa”* laguntzeko bitartekoak jarriko dituztela dio. 2003-2007 Kirolaren Euskal planak berriz, “Emakumea kirolean” ha rtzen du *garrantzi handiko ekintza lerrotzat*².

Hala eta guztiz ere, **4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa** onartzeak, eta bertan kirolaren inguruko berariazko atal bat jasotzeak³, inflexio puntu bat suposatu zuen EAEko kirol arloko berdintasun politiketan. Izan ere, ondorengo legedi guztietan, kirol arloan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzera bideratutako neurriak jasotzea ekarri baitu honek. Araudi honen adibide dira 16/2006 Dekretua, urtarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol Federazioak arautzen dituen; 2008ko urtarrilaren 28ko Agindua, Euskadiko eta lurraldeetako kirol federazioetan hauteskundeak arautzeko eta gauzatzeko irizpideak ezartzen dituen; Eskola-kirolari buruzko 125/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa; edo 203/2010 Dekretua, uztailaren 20koa, Goi-Mailako Kirolarena. Azken batean,

¹ 2005etik Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzan bada Emakumea eta Kirola izeneko lan-taldea, Zuzendaritza honetan ezartzen diren politika eta ekintzak gainbegiratu eta berritzeaz arduratzen dena, eta kirol arloan emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko ekintzak proposatzen dituen.

² Azurmendi, A. (2005). *Repercusión de la actividad institucional en la práctica deportiva de las mujeres en la CAE*. Andoain: Leizaran Grafikak.

³ 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoa, II. Kapitulua, 25. Artikulua.- Kultura-jarduerak, 2, 3, eta 4 atalak. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA), 2005eko martxoaren 2koa, 42. zbkia.

berdintasuna bultzatzeko neurriak ezarri dira, zeharka Euskadiko kirol arloko hainbat mailatan eragiten dutenak, esaterako, federazioetako egituretan, euskal kirol federazioetako hauteskunde prozesuetan eta eskola-adinean dauden kirol jardunean.

Euskadiko Kirol Federazioen 16/2006 Dekretuak, urtarrilaren 31koak, zehazki, *modalitate guztietako kirol jardunetan eta federazioen kudeaketan ere*⁴, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzera konprometitzen ditu kirol federazioak. Betebehar hori betetze aldera federazioen parte-hartzea bultzatu asmoz, proiektu bat burutu zuen Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak 2007-2008 biurtekoan. Batetik, *kirolean berdintasunerako komunikazio Gida*⁵ eta sexistak ez diren hizkera eta irudiak erabiltzeko prestakuntza-ikastaro bat landu zituen; eta bestetik, Euskadiko hainbat kirol federaziotan Berdintasunerako Planak burutu zituen. Hona hemen:

- Euskal Kirol Federazioen Batasunaren Berdintasunerako Plana
- Euskadiko Saskibaloï Federazioaren Berdintasunerako Plana
- Euskal Hipika Federazioaren Berdintasunerako Plana
- Euskadiko Igeriketa Federazioaren Berdintasunerako Plana

EAEko kirol arloko lege-garapenaren esparruan, orain gutxi **203/2010 Dekretua, uztailaren 20koa, Goi-mailako Kirolarena**, argitaratu, da. Dekretu honetan goi-mailako emakume kirolarien jarduerarekin zerikusia duten hainbat neurri aipatzen dira, esaterako, beka urtebetez luzatzeko aukera haurdunaldi bakoitzeko.

Hala eta guztiz ere, goi-mailako kirolari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen du EAEko goi-mailako emakume kirolarien egoeraren ezagutza sakontzea, emakume hauen bizipenak eta kirol-ibilbidean aurkitu ahal izan dituzten oztopoak antzematea. Hau dela eta, Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak **EAEko goi-mailako emakumezko kirolarien azterketa, genero**

⁴ 16/2006 Dekretua. Urtarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol Federazioena, XIV Titulua, 169 Artikulua. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA), 2006ko otsailaren 14koa, 31zbkia.

⁵ EUSKO JAURLARITZA-GOBIERNO VASCO (Azurmendi, A. eta Elduaen, M.) (2007). *Kirolean berdintasunerako komunikazio Gida*. Vitoria-Gasteiz: EJ-GV.

ikuspuntutik, egiteko eskatu dio Avento-ri. Azterketa horren emaitza da honako txosten hau.

2. HURBILKETA TEORIKOA

lkerketa honek, emakume eta gizonenak dituzten berdintasun eskubideak osotasunean gauzatzekoan, gure gizartean dauden desberdintasunetan oinarritutako planteamendu teoriko bat du oinarri. Kirola, gizonezkoen esparrua izan da tradizioz, eta gizarteko beste esparruetan azaltzen diren genero desberdintasunak are argiago azaleratzen dira bertan. Beraz, genero ikuspuntutik kirol arlorako hurbilketa batek, esparru hau gizartearen islatzat hartuz lantzea suposatzen du. Eta beraz, gizarte honetako mito, estereotipo eta kultura eta hezkuntza arloko beste baldintzatzaile batzuk ere kontuan hartu beharko dira, hauek, bizitzan zehar, kirolean emakume eta gizonek izango dituzten harremanak zehaztuko dituzte-eta.

Sozializazioa

Egile batzuen ustetan, neskatoak eta mutikoak, jaiotzatik sozializazio modelo desberdinen arabera hezitzen dira (Weinberg eta Gould, 1996; Fontecha, 2003), eta honek eragina omen du gerora bakoitzak ariketa-fisikoa eta kirolarekiko izango duten jarreran (Díez, 1996)⁶. Sozializazioaren bitartez ikasitako jokabideez gain, oraindik ere, sexu bakoitzari lotutako estereotipoek ere eragina dute neskato eta mutikoek kirol mota aukeratzean eta aukeratuko dutakirolaren iraupenean ere (Díez eta Guisasola, 2002).

⁶ Non bildua: Azurmendi, A. (2009). *Zergatik uzten diote emakumeek kirola egiteari? Eragiten duten aldagai psikosozialak*. I. Alonso-Arbiol eta M. Gallarin (Eds.) Generoa aztergai psikologian: egungo ikerketak. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

Geroz eta gehiago dira estereotipoak bazter batean utzi eta berez gizonezkoentzat ei ziran kirolak praktikatzen dituzten emakumeak. Hala ta guztiz, kirol hauetan parte hartzen duten emakumeen aldetik jarrera maskulino bat itxaroten da gaur egun ere.

Estereotipoak

Zentzu honetan, maskulinitatearekin lotutako estereotipoak ez bezala (oldarkortasuna, lidertza, nekaezintasuna, anbizioa, lehiakortasuna, erresistentzia, etab.), emakumeekin lotutako estereotipoak (esanekea izatea, amatasuna, pasibotasuna, menpekotasuna, samurtasuna, etab.) ez dira kirol-errendimendu handiko aktibitatearekin lotzeko moduko ezaugarriak (García Ferrando, 1990). Ondorioz, eta jada orain hogeitaz hamar urte García Ferrandok (1990) esan zuen, lehiaketazko kirola gizonezkoen ezaugarriekin identifikatu izanak gatazka eragin duela errendimendu-kirolean ari diren emakumeengan (García Ferrando, 1990)⁷.

Maskulinizazioa

Ariketa fisikoan adituak ziren emakumeekin⁸ eta kirolariekin Donostian genero ikuspuntutik abiatuta egin zen talde elkarrizketa baten oinarrituta Lasartek (2007) idatzitako artikulua baten zera esaten da, emakume kirolariek maskulinizazioa betebehartzat dute kirol arloan emaitza onak eskuratu nahi badituzte; emakumezko kirolari batzuek, maskulinizazioa gorputzeko muskuluak lantzearekin lotzen dute, feminitatea galduz. Eta haien feminitatea ziurtatzeko, bere burua “apaintzen” dute belarritako, makillaje, takoi eta antzekoen laguntzaz.

⁷ Azurmendi, A., 2009, aip. ob.

⁸ Naroa Agirre (pertika-jauzilaria), Larraitz Lucas (futbolaria), Maider Mendizabal (palista), Matilde Fontecha (UPV/EHU) eta Ainhoa Azurmendi (Avento Consultoría).

Kirolari hauek honako hau ere baieztatu dute: gizartean emakumearen eta kirolaren arteko erlazioa zehazten duten hainbat faktore daudela. Gai honi buruz idatzitakoetan azaltzen diren aipuekin bat etorritz, gizarteak, komunikabideek, familiak, etab., norbere aukerak neurri handi baten baldintzatzen dituztela azaltzen dute Lasartek elkarriketatutako kirolariek. Izan ere, *“oraindik ere, neskentzat, oso garrantzitsua baita bizitza sentimentala eta familia, eta gainontzeko guztiarekin uztartu beharra dago”*⁹.

Egiturak eta erakundeak

Aurrerago aipatu ditugun eta, kirola eta emakumearen arteko erlazioan eragin zuzena duten gizarteko eta hezkuntzako faktoreez gain, egiturazko eta antolaketazko zenbait oztopori egin behar die aurre kirol ibilbidean zehar, batez ere federazioei eta klubei dagokienean, kirolean parte-hartzea zailtzen die-eta: gizonezkoek baino babes ekonomiko gutxiago jasotzen dute, ordutegi txarrenak ematen zaizkie, instalazio txarrenak, okerren gaitutako entrenatzaileak, etab. (Mosquera eta Puig, 2002; Fontecha, 2003).

Babesak, bertan behera uzteak eta jarraipena

Gizarte arloko eta antolaketazko baldintzatzaile guzti hauen ginetik kirolarekin jarraitu eta goi-mailako kirolari izatera iritsi diren emakumeak, edo kirola izugarri maite duten emakumeak izan dira, desberdintasunez betetako inguru baten, kontziente edo inkontziente izanda, oztopo guztiak gaindituz aurrera egin dutenak, edo kirol arloan dituzten gaitasunekin ohartuta, familiaren eta egituraren –inguruarena orokorrean- laguntza izan dute, goi-mailako kirolari bihurtu diren arte.

⁹ Ibid 6.

Bide honetan egindako ikerketa batzuetan argi azaltzen da guraso askok, kontuari garrantzi handirik eman gabe, haien alabek kirol-jarduna alde batera uztea ontzat ematen dutela. Alabek eurek onartzen dute kirola gaztaroko kontu bat baino ez dela, eta ez dela etorkizunean lanbide izango, eta nahiago dute geroari begira errentagarriagoak izango diren ekintzetan denbora ematea. Bestalde, emakume gazteen artean onartua dago kirolen baten nabarmentzen diren neska gazteak direla, gehien bat, kirola egiten jarrai dezaten animoak jasotzen dituztenak, bai entrenatzaileen eta bai gurasoen aldetik (Azurmendi 2005, 2009).

Emakumezko kirolariek eurek eta bai familiakoek, ikasketek kirolaren aurretik egon behar dutela uste dutenez, ez da harrizkeoa kirola uztearen inguruko idazki gehienetan ikasketen aipua azaltzea –ekintza biak uztartzeko denbora falta- kirola uzteko arrazoi nagusienetakotzat¹⁰.

Profesionalizazioa

Nahiz eta emakumezko goi-mailako kirolari asko ez diren kirol ibilbidean –eta bizitzan- zehar jasandako desberdintasunez jabetzen -dauden lekura heltzeko jaso dituzten laguntzak direla-eta-, badira kontraesanak haien adierazpenetan. Esan nahi da, profesionalizazioari buruz hitz egitean, adibidez, “*utopia*” bat dela onartzen dute (Lasarte, 2007, 33). Ildo berean, “*ez erantzukizunezko karguren bat duten emakumeak, ezta kirolari direnak, ez batzuk ez besteak, ez dira jabetu jasaten ari diren desberdintasunaz, eliteko kirolaren eredu hegemonikoak irentsi ditu*” (Fontecha, 2008, 29)¹¹.

¹⁰ Azurmendi, A., 2009, aip. ob.

¹¹ Fontecha, M. (2008). ¿Hay deporte para chicas y deporte para chicos? *Berdintasunaren 5. Udal Jardunaldiak. Galdakaoko Udala. “Kirolean berdintasuna praktikatzu”, Galdakao, azaroa.*

Ereduak eta komunikabideak

Emakumeentzako eredu eta erreferente faltak ere badu eragina neskatoengan geroari begira. Bai Fasting eta bestee (2009), bai Díez eta Gisasolak (2002), zera adierazten dute, kirola egiteko unean familia faktore garrantzitsu bat den arren, ez dago ia eredurik kirolaren praktikan eta kudeaketan. Eta komunikabideetan, gertakizunak, ez dira ia azaldu ere egiten¹².

Hau dela eta, ikerketa honi ekiteko eta *Fundazioak* beka eman dien emakumezko goi-mailako kirolariek haien kirol ibilbidean zehar -eta baita gaur egunean goi-mailako kirolari bezala bizi duten esperientzian- izan dituzten oztopo eta zailtasunak ezagutze aldera, derrigorrezkoa da aspektu psikosozial guzti hauek kontuan hartzea, kirolarekin duten harremanean nolako eragina izan duten -edo duten- aztertuz eta euren buruarekiko pertzepzioa zein den argituz.

Fasting eta besteen (2000) ustetan, emakumeek kirolean duten parte-hartzeari buruzkoak diren eta banakako mikroprozesu/prozesuetan (norbere buruarekiko iritzia, gorputzaren kontzientzia, gorputzaren kultura) zentratutako hurbilketen eta makroprozesu/prozesu sozialen (bizimodua, sare sozialak, etorkizunari begirako egitasmoak) arteko zubi-lana egiten ahalegindu diren azterketa kualitatibo gutxi dago.

Jarraian aurkeztutako ikerketak, emakume kirolarien barneko prozesuen (banakakoak) eta kanpoko prozesuen (sozialak) bateratzea zehazteaz gain, orain artean burututako ikerketekin alderatuz aspektu berriak aurkezten ditu: batetik, ikerketak emakumezko goi-mailako kirolariak dituelako ardatz, eta bestetik, ikerketatik ateratako ondorioen arabera, eta Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzaren kompetentzia eremua zein den ahaztu gabe, neurri batzuk proposatzen dituelako somatutako desberdintasunak konpontze aldera.

¹² Azurmendi, A., 2009, aip. ob.

3. FUNDACIÓN EUSKADI KIROLA FUNDAZIOA (BASQUE TEAM)

Fundación Euskadi Kirola Fundazioa (aurrerantzean Fundazioa) herri onurako eta irabazi asmorik gabeko erakundea da, 2007. urtean Euskadiko Administrazio Orokorrak eta Euskal Irrati Telebista erakunde publikoak – EITBk – sortua. Fundazioak, 2008. urtean jalgi zuen Bat Basque Team (BAT) marka komertzialaren bidez, Euskal Herriko goi-mailako kirola bultzatzea du bere helburu nagusi¹³. Erakunde honen interes orokorreko helburua “Goi Mailako euskal kirolaren garapena bultzatzea eta sustatzea da; horrela, goi mailako nazioarteko kirol lehiaketetan eta, bereziki, goi mailako kirol ekitaldietan euskal ordezkaritza zabalak parte hartu ahal izateko. Halaber, lehiaketa horietan euskal kirolariek goi mailako emaitzak izatea” da¹⁴.

Fundazio honek “Euskadi Kirola Bekak”-en bidez bideratzen du kirolarientzako laguntza. Laguntzak hainbat eratakoak izan daitezke¹⁵, hona hemen:

- **Laguntza ekonomikoak:** oinarritzko bekak; helburuak lortuz gero sariak; eta laguntza osagarriak (aparteko gastuak).
- **Kirol prestakuntza optimizatzeako laguntza eskaintzea:** laguntza teknikoa; laguntza biomedikoa; trebakuntza akademikorako eta profesionalerako programan sartzeari, eta goi-mailako kirolari irudia hobetzea; kirol modalitateari aplikatutako berrikuntzan eta garapen zientifikoa laguntza teknikoa.

¹³ www.basqueteam.com helbidean lortutako informazioa

¹⁴ IRAGARKIA, Euskadi Kirola Fundazioak goi mailako kirola sustatzeko 2010. urtean emango dituen beka eta laguntzen oinarriari buruzkoa. EHAA, 2010eko otsailaren 18koa, 33. zbakia.

¹⁵ Ibid 12.

Fundazioak ematen dituen bekek profesionala ez den goi-mailako kirola sustatzea eta laguntzea dute helburu¹⁶. Beraz, garrantzitsua da Fundazio barruan EAEko liga profesionaletan parte hartzen duen kirolaririk ez dagoela kontuan hartzea.

Eskatzaileak diren entitate eta pertsonen kirol arloko merituak, ondorengo zein talderi dagozkion aztertuta balioesten dira:

- A Taldea: Banakako kiroleko kirolari olinpikoak
- B Taldea: modalitateetako banakako kirolariak
- C Taldea: Talde-kiroleko kirolariak, modalitate olinpikoetan
- D Taldea: Talde-kiroleko kirolariak, programa olinpikotik kanpo dauden modalitateetan
- E Taldea: Goi-mailako kirolari egokituak
- F Taldea: Kirol Teknikariak¹⁷
- G Taldea: Goi Mailako Kirol Entitateak¹⁸

Fundazioak emandako bekek urte beteko iraupena dute, eta Eusko Jaurlaritzaren eta kirolariaren arteko hitzarmen baten bidez gauzatzen dira. Berriz, bekak emateko irizpideak, aurreko urtean kirolariak izandako emaitzetan eta hurrengo urteari begira finkatutako kirol-planifikazioan oinarritzen dira¹⁹.

¹⁶ *Iragarkia, Euskadi Kirola Fundazioak goi mailako kirola sustatzeko 2010. urtean emango dituen beka eta laguntzen oinarriari buruzkoa*. EHAA, 2010eko otsailaren 18koa, 33. zbakia.

¹⁷ A, B, C eta D taldeetako kirolarien prestakuntzaren arduradun nagusienak direala ziurtatzen duten teknikariak. BAT barruan "nukleo entrenatzaile" izena hartzen dute, kirol entitate baten barruan, modalitate berekoak diren gutxienez bi pertsonen prestakuntzaz arduratzen diren teknikariak.

¹⁸ Beka baten onuradun izateaz gain, modalitate berekoak diren eta goi-mailako kategorian dauden gutxienez bi kirolari dituzten entitateak

¹⁹ BAT Basque Team-ek emandako informazioa.

4. HELBURUA ETA METODOLOGIA

Ikerketa honen helburua honako hau da: *Fundazioak* beka eman dien goi-mailako emakume kirolariek, goi-mailako kirolera heltzeko edo bertan mantentzeko aurkitu dituzten, eta oraindik ere aurkitzen dituzten, **oztopo eta babesak ezagutzea**. Horrez gain, eta Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzaren eskumenei dagokienean, kirolari hauen eta etorkizun oparoa eduki dezaketen bihar etziko emakumezko euskal kirolarien egoera hobetze aldera, **ekintza-neurriak proposatzea**.

Ikerketa hau, **kualitatiboa den metodologia** erabilita burutu da, eta erdiegituratutako banakako galdera-sorten, elkarriketa sakonen eta talde dinamiken bidez, kirolarien bizipenak ezagutze aldera bideratu da.

92 galderadun erdiegituratutako galdera-sorta diseinatu zen, 45 minutu inguruko iraupena zuena, eta *Fundazioko* goi-mailako kirolarien bizitzari eta kirol esperientziei buruzko honako gaiak lantzen zituen: datu pertsonalak; kirol ibilbidea; familia eta gizarte ingurua (iragana eta oraina); kirolari lotutako eguneko ekintzak; gizarte mailan eta, maila ekonomiko eta pertsonalean, goi-mailako kirolari izateak zer suposatzen duen; eta etorkizuna.

Galdera-sorta honen edukiak, ondoren burutu zen elkarriketa sakonagoen eta talde dinamiken gidoi-protokoloaren diseinurako oinarria izan ziren.

4.1 Lagina

Ikerketaren lagina gaur egunean eta instituzioei dagokienean, EAEko goi-mailako kirolari diren emakume eta gizonek osatu dute. Hau da, *Fundazioak, goi mailako nazioarteko kirol lehiaketetan parte hartzeko eta goi mailako emaitzak izateko beka* eman dien emakumezko eta gizonezko kirolariek²⁰.

Ikerlanean, *Fundazioko* goi-mailako kirolariek hartu dute parte, bai emakumeek eta bai gizonek. Ikerketa emakumezko kirolarien esperientzia jasotzean oinarritu bada ere, gizonezkoak konparaziorako elementu moduan erabili dira, galdera-sortan landutako gaietan genero-arraila zehazteko.

53 kirolarik, 25 emakumek eta 28 gizonek, lortu zuten *Fundazioaren* bekaren bat 2009 urtean. Jarraian, modalitateen taula bat ageri da, eta modalitate bakoitzean zenbat emakume eta zenbat gizonek eskuratu zuten beka:

²⁰ *Iragarkia, Euskadi Kirola Fundazioak goi mailako kirola sustatzeko 2010. urtean emango dituen beka eta laguntzen oinarriari buruzkoa*. EHAA, 2010eko otsailaren 18koa, 33. zbakia.

1 Taula. 2009 urtean *Fundazioak* beka emandako kirolariak.

Modalitatea	Emakumea	Gizona	Guztira
Atletismoa	1	1	2
Eskubaloia	1		1
Badminton	1		1
Boccia	1		1
Txirrindularitza	3	8	11
Eskalada	1	1	2
Hockey-a	2		2
Judoa	3	1	4
Karatea	0	1	1
Borroka olinpikoa	1		1
Igeriketa	3	2	5
Patinajea		2	2
Urpeko arrantza		1	1
Piraguismoa	4	5	9
Surf-a	1	1	2
Taekwondo	1	1	2
Tiro olinpikoa		1	1
Triatloia	2	1	3
Bela		2	2
Guztira	25 ²¹	28	53

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritza

53 kirolari hauetatik 10 (4 emakume eta 6 gizon), kirol egokituko kirolariak dira, eta ondorengo modalitate hauen ordezkari dira:

²¹ Garrantzia du honako hau kontuan hartzeak: BAT-ek beka eman dien kirolarien artean gizonezkoen eta emakumezkoen kopurua parekoa da, baina kontuan izan behar da gizonezko askok kirola ogibidetzat dutela, professional lez hartzen zaiela (futbolariak, eskubaloi jokalaria, pilotariak, etab.), eta bekak ez daudela hauentzat zuzenduta.

2 Taula. 2009 urtean *Fundazioak* beka emandako kirol egokituko kirolariak.

Modalitatea	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Boccia	1		1
Txirrindularitza		4	4
Judo	1		1
Igeriketa	2	2	4
Guztira	4	6	10

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritza

4.2 Prozedura

Erdiegituratutako galdera-sorta eman zitzaion lagin osoari. 36 galdera-sorta eskuratu dira guztira (bekadun kirolarien %67,9), hauetatik 15 emakumeenak (galdera-sorten %42, bekadun kirolarien %60) eta 21 gizonak (galdera-sorten %58, bekadun kirolarien %75) izan dira.

Eskura emandako galdera-sortak 20 izan ziren (%55), 11 gizoni eta 9 emakumeri. Gainontzeko kirolariek korreoz jaso zituzten galdera-sortak eta beste 16 galdera-sorta eskuratu ziren (%45), gizonenak 10 eta emakumeenak 6.

Galdera-sorta banatu zen unean kirolari asko atzerrian aurkitzen ziren, entrenatzen edo lehiaketetan parte hartzen. Eta hau oztopo izan da landa-lana burutzeko unean, zaildu egin baitu ikerketan kirolari gehiagok parte hartzea.

Galdera-sorta EAEko bi hizkuntza ofizialetan eman zitzaaien kirolariei, bakoitzak nahiago zuena aukera zezan. 36 galdera-sortetatik 17 (%47,2) euskaraz bete ziren (7 emakume eta 10 gizon), eta 19 (%52,7) gaztelaniaz (8 emakume eta 11 gizon).

Ondoren, emakumezko 4 kirolari aukeratu ziren, **aztertu beharreko helburuaren arabeko irizpide estrategikoak** jarraituz **elkarrizketa sakonagoak** egin asmoz:

- Talde-modalitateak eta banakako modalitateak
- *Indoor* eta *outdoor* modalitateak
- Tradizioz gizonetzkoenak diren modalitateak
- Modalitate olinpikoak eta ez-olimpikoak

Hona hemen elkarriketatutako emakume kirolarien profila erakusten duen taula:

3 Taula. Ikerlana burutze aldera elkarriketatutako Fundazioako emakume kirolariak

Izena	Adina	Modalitatea	Ezaugarriak
A.U.	20	Txirrindularitza	Banakakoa, indoor-a eta outdoor-a, tradizioz gizonezkoena, olinpikoa
N.G.	33	Piraguismoa	Banakakoa, outdoor-a, olinpikoa
M.U.	32	Borroka olinpikoa	Banakakoa, indoor-a, tradizioz gizonezkoena, olinpikoa
T.G.	36	Eskubaloia	Taldeakakoa, indoor-a, olinpikoa

Iturria: Egileak berak egin

Elkarriketak burutu ostean, *Fundazioaren* beka zuten lau “nukleo entrenatzaile”ekin²² **talde-dinamika** bat eta elkarriketa bat antolatu zen, euren kirolariak nola ikusten zituzten, haiei buruz zer iritzi zuten, bidean aurkitzen zituzten oztopoak zeintzuk ziren, zeintzuk arazo zituzten eta haiek konpontze aldera egin beharreko proposamenak ezagutzeko asmoz.

Hona hemen prozedura metodologikoaren laburpena eta informazioa jasotze aldera garatutako teknika desberdinak burutu direneko datak:

²² A, B, C eta D taldeetako kirolarien prestakuntzaren arduradun nagusienak direala ziurtatzen duten teknikariak. BAT barruan “nukleo entrenatzaile” izena hartzen dute, kirol entitate baten barruan, modalitate berekoak diren gutxienez bi pertsonen prestakuntzaz arduratzen diren teknikariak.

4 Taula. Prozedura metodologikoaren laburpena

15/12/2009	Kirolariei eskura emandako galdera-sortak
21/01/2010	Kirolariei eskura emandako galdera-sortak
03/03/2010	A.U.-ri elkarriketa
10/03/2010	N.G.-ri elkarriketa
15/03/2010	T.G.-ri elkarriketa
16/03/2010	M.U.-ri elkarriketa
29/03/2010	Nukleo entrenatzaileei elkarriketa – R.K.
30/03/2010	Nukleo entrenatzaileekin dinamika – X.E., R.M., C.A.C.

Iturria: Egileak berak egina


Fundazioko langileek bertako kirolariekin trebakuntza saioak burutzeko jarriak zituzten egunak (abenduaren 15a eta urtarrilaren 21a) aprobetxatu ziren galdera-sortak eskura emateko. Tamalez, saio horietan 20 kirolarik baino ez zuten parte hartu (*Fundazioko* bekadun kirolarien %38k). Esanda gera dadila, proiektua garatzeko informazio bilketan, *Fundazioko* langile guztiek erakutsi duten jarrera ona.

5. EMAITZAK

5.1 Kirolarien profila

Hemen azaltzen diren 32 galdera-sortak (*Fundazioko* kirolarien %60,3) aztertuta²³, 14 (%44) emakumeenak dira eta 18 (%56) gizonenak. Hona hemen, grafikoki, galdera-sortak erantzuteko unean *Fundazioko* kirolarien parte-hartzea:

1 Irudia. Galdera-sortak erantzutean *Fundazioko* kirolarien parte-hartzea, sexuaren arabera



Iturria: Egileak berak egina

Ikertlanean parte hartu duten kirolarien batezbesteko adina 26 urtekoa da, 19 eta 35 urte arteko adin-tartekoak. Emakumeen batezbesteko adina (28,14 urte) gizonena baino arean handiagoa da (25,44 urte).

²³ Betetako 36 galdera-sortetatik 4 kirol egokituari dagozkio. Talde honetako kirolarien berezitasunak kontuan hartu behar dira, eta azterlan honen amaieran kirol egokituari dagokion aparteko atal bat aurki genezake.


5 Taula. *Fundazioko* kirolarien batezbesteko adina eta adin-tartea

	Batezbestekoa	Adin-tartea
Emakumeak	28,14	20-34
Gizonak	25,44	19-35

Iturria: Egileak berak egina

Ikertlanean parte hartu duten kirolarien gehiengoak (%65,6), kirol modalitate olinpikoren bat egiten dute, horietatik %53,1ek banakako modalitatean hartzen du parte, eta %12,5ek taldekakoan.

Ikasketa-maila aztertuz gero, sexuaren arabera desberdintasunak antzeman ditzakegu; emakume gehienek (%50) goi-mailako ikasketak²⁴ dituzte edo ikasketa hauek burutzen ari dira. Gizonak berriz, batek ere ez du goi-mailako ikasketarik, eta erdi-mailako ikasketak dituztenak eta oinarrizkoak dituztenak %77,7 eta %22,2 dira hurrenez hurren.



²⁴ Diplomatuenak, lizentziatuak edo ingeniariak.

Oinarrizko-ikasketak dituzten emakumeak %7,1 baino ez dira. Azpimarratu beharrekoa da gainera, ikerketa burutu zen unean emakumeen %64,2 eta gizonen %61,1 ikasketak burutzen ari zirela. Baina ikasketak eta goi-mailako kirola uztartzean arazoak dituztenak gehiago dira emakumeen artean gizonen artean baino (%77,7 eta %63,6 hurrenez hurren).

Kirolari gehienek (%77,4) ez dute goi-mailako kirolari izateaz gain beste lanbiderik. Hona hemen *Fundazioko* kirolarien lan-egoeraren laburpen-taula:


6 Taula. *Fundazioko* kirolarien lan-jarduera

	Lana dute	Ez dute lanik
Emakumeak	%30,77	%69,23
Gizonak	%16,67	%83,33
Orokorrean	%22,58	%77,42

Iturria: Egileak berak egina

Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren adierazle, datu esanguratsua da lana duten emakumeak %30,7 direla, gizonak %16,1 diren bitartean.

3 Irudia. *Fundazioko* kirolarien lan-jarduera




Iturria: Egileak berak egina

Lana duten kirolarien %57,1ek (emakumeen %50ek eta gizonen %66,6k) kirolarekin zerikusia duen lanbideren bat du.

Gizon eta emakumeek duten lan-kontratua aztertzen badugu, emakume gehienek lanaldi partzialeko lan-kontratua dutela ikusiko dugu (%50ek). Gizonen kasuan honako modu uniformean banatzen da: lanaldi osoko lan-kontratua %33,3k du, lanaldi partzialekoa %33,3k, eta %33,3k beste erregimen batekoa.

4 Irudia. Emakume eta gizonen kontratu-mota



Iturria: Egileak berak egin


Azkenik, gaur eguneko etxeko familia-egiturari dagokionez, gizonezko gehienak euren gurasoen etxean bizi dira (%55,5). Emakumezkoen artean berriz, gurasoen etxean eta bikotearekin bizi direnen arteko portzentaia, bera da (%42,8).

7 Taula. Kirolarien familia-egitura

	Vive sola/o	Con familiares	En pareja	Comparte piso
Mujeres	7,14%	42,86%	42,86%	7,14%
Hombres	11,11%	55,56%	27,78%	5,56%
General	9,38%	50,00%	34,38%	6,25%

Iturria: Egileak berak egina

5 Irudia. Kirolarien familia-egitura



Iturria: Egileak berak egina


Orokorrean, emakumeak gizonak baino independenteagoak dira, bikotearekin edo pisua elkar banatuz bizi direnak %57,1 baitira. Gizonen artean, portzentaia hau %44,4ra jaisten da.

5.2 Kirol arloko iragana: familia, lagunak eta kirol ibilbidea

Kirol ibilbidea

Gizonezkoek leialtasun gehiago erakusten dute lehenengoz aukeratu zuten kirol modalitatearekiko; gaur egunean praktikatu zuten lehen modalitatearekin jarraitzen duten gizonezkoak %55,6 dira. Modalitatez aldatu diren emakumeak aldiz, %42,8 dira.

6 Irudia. Kirolari bakoitza zein kirolelan hasi zen



Iturria: Egileak berak egin

Kirolari gehienak, bai emakumeak eta bai gizonak, gustukoa zutelako hasi ziren haien lehen modalitatean (gizonen %57,1 eta emakumeen %31,2)


8 Taula. Kirola egiten hastearren arrazoiak

	Gizonak	Emakumeak
Ikastola	%7,14	%37,50
Gustukoa/pozgarria	%57,14	%31,25
Familia	%21,43	%6,25
Lagunak	%0,00	%12,50
Kuriositatea	%0,00	%6,25
Kasualitatea	%7,14	%0,00
Obligazioa	%7,14	%0,00
Argaltzeko	%0,00	%6,25

Iturria: Egileak berak egina

Kontuan hartu beharrekoa da kirol modalitatea aukeratzeko unean, familiak gizonen kasuan emakumeen kasuan baino eragin handiagoa izan zuela (gizonek aipatutako arrazoiak %21,4 emakumeek aipatutakoen %6,2ren aurrean). Emakumeen kasuan, eskolan aukeran zuten kirol-eskaintzak eragin handiago bat izan zuela dirudi (emakumeek aipatutako arrazoiak %37,5, gizonek aipatutakoen %7,1en aurrean).

7 Irudia. Kirola egiten hastearren arrazoiak




Iturria: Egileak berak egina

Aurreko guztiaz gain, kirola egiten hasteko arrazoiaren artean emakumeen %12,5ek eta gizonen %0k adiskide koadrilak eragina izan zuela adierazi dute. Emakumeen %6,2k eta gizonen %0k argaltzea ere arrazoietakoa bat izan zela azaldu dute.


Kirol ibilbidean zehar taldez edo klubez aldatu diren kirolariak aztertuz gero, emakumeek aldakortasun handiagoa azaltzen dute klub kopuruari dagokionez; emakumeen %78,5ek eta gizonen %50ek aldatu du noizbait klubez.

8 Irudia. Klub aldaketa kirol ibilbidean zehar



Klub aldaketa bat egon zen kasuetan, aldaketa horren arrazoiak aztertzen baditugu, emakume eta gizonen artean desberdintasunak daudenaz jabetuko gara:

9 Irudia. Kirolariak klubez aldatzeko arrazoiak




Gizonak klubez aldatzeko arrazoi nagusia fitxaketak izan dira (%45,4). Emakumeek aipatutako arrazoiaren artean badaude gizonezkoek aipatu ez dituzten batzuk ere: giroa gustukoa ez izatea (%11,1), gizonezko entrenatzailea atsegin ez izatea (%5,5) eta emakumezko entrenatzailea atsegin ez izatea (%16,6).

Etxeko lanak

Nerabezaroan emakumeek eta gizonek etxeko lanetan izan zuten arduran desberdintasunak antzeman dira; emakumeek 2,1 lan egiten zituzten batez beste eta gizonezkoek 1,5.


10 Irudia. Kirolariek egiten zuten etxeko lanen kopurua



Bai emakumeek eta bai gizonek gehien aipatu duten etxeko lana “gela txukuntzea” izan da.

Lagunartea eta kirola bertan behera uztea


Nerabezaroan, kirolarekin harreman gehiago duten adiskideak dituzte inguruan gizonak (%66,6) emakumeekin alderatuz (%21,4).



Nerabezaroan kirola egiten duten emakumeak gizonak baino gutxiago izateak, kirola eta ikasketak uztartzeko zailtasunean aurki ditzake arrazoiak. Izan ere, gizonen %61,1ek eta emakumeen %35,7k onartzen dute era bateko edo besteko arazoak izan dituztela biak uztartzerakoan. Beraz, ikasketak direla eta kirola utzi ez duten emakumeek ongi uztartzen dituzte jarduera biak.

“Nire neska koadrilako inork ez zuen nik egiten nuen kirol bera praktikatzen; saskibaloia, futbola, atletismoa egiten zuten....baina utzi egin zuten. Batzuek, alferrak zirelako, exijentzia eta irmotasuna behar zelako, besteek batzuek, ikasketak zirela-eta...”

12 Irudia. Nerabezaroan, kirola eta ikasketak uztartzeko arazoak



Iturria: Egileak berak egin

Ibilbidean zehar familiak emandako laguntza

Emakumeen %64,2k eta gizonen %72,2k ziurtatu du familiaren babesa izan zutela kirolarekin jarraitzeko unean. Elkarriketatuak izan diren emakume bik, familiaren aldetik erabateko babesa izan dutela sentitzen dute, baina ikasketak duten garrantzia eta aktibitate biak uztartzeko beharra argi utziaz; Beste batek ordea, ez duela inolako laguntzarik izan ziurtatu du:

“Gazte nintzela zera esaten zuten, <”utz iezaiozu, gustura ari da”>, baina ikasketekin kili-kolo hasi nintzenean erabaki bat hartu behar nuela esan zidaten, eta horrek eta lesioek bat egin zutenean... zera esaten zidaten: <”utz ezazu behingoan...”>”.

“Etxean ez nuen inoiz oztoporik izan (kirolean) jokatzeko unean, nahiz eta amak ikasten jarraitzeko ere ekiten zidan... Ikasketak utzi nituen, arduragabe jokatu nuen”.

“Ikasketetan zentratzeko esan ahal izan zidaten, baina zorte handia izan dut”.

“Beti esan izan digute 18 urteak bete arte, ikasketek zutela lehentasuna, askogatik gainera, gure etorkizuna izango ziren-eta...”.

“Inoiz ez nuen denboraldia behar bezala burutzen, ikasketei ematen nien lehentasuna... Ikasten eta gainditzen ez banuen, etxean... Ikasketak garrantzitsuak ziren, ikasketarik gabe ezin ezer izatera heldu... Gurasoek asko lagundu digute horretan eta ikasketek duten garrantzia irakatsi digute”.

Kirol lehiaketetarako bidaletan familiak emandako laguntzan ere antzematen da babesa:


“Nire ahizpek beti eramaten ninduten lehiaketetara”

“Aita eta ama beti ibili dira zoratu beharrean...lasterketak...batera eta bestera hirurok hartuta (bera, bere ahizpa eta neba bat)”.

Oztopoak

Emakumeen %26,6k eta gizonen %20k ez omen zuten inolako oztoporik aurkitu kirola egiten hasi zirenean, eta emakumeen eta gizonen %20k, ikasketak arazo bat izan zirela argitu dute.

13 Irudia. Kirola egiten hasteko oztopoak



Iturria: Egileak berak egina

Oztopoak aztertuz gero, daturik esanguratsuena honako hau da: oztoporik izan ez dutenen artean gehiago dira emakumezkoak gizonezkoak baino, baina, emakume gehiago dira gizonezkoak baino, kirola egiteko unean baliabide faltak eta bidaiek arazo bat suposatu dutela uste dutenak.

Bestalde, aldakortasun gehiago dago gizonen erantzunetan emakumeenetan baino, esan nahi da, emakumezkoek hiru oztopo mota zehaztu dituzten bitartean (ikasketak, baliabide falta eta bidaiek), gizonezkoek bost aipatu dituzte (emakumeek esandakoez gain, teknikari falta eta haiek aukeratutako modalitatea gutxiengoan kirola zela).

Ereduak

Elkarrizketatutako emakumezko kirolari denek, haurtzaroko idoloak alde batera utzi eta hurbilagokoak aipatzen dituzte, hau da, taldekide izan diren emakumeak edo kirol ibilbidean zehar gertu izan dituzten emakumeak dakartzate ahora; ez dute haurtzarotik hona jarraitu nahi izan duten eredurik aipatu. Elkarrizketatutako lautik hiruk gizonezko baten izena eman dute:


“telebistan ikusitakoa izaten da beti...”

5.3 Gaur eguna: goi-mailako kirolari izatea

Bidaiak lehiaketetara

Emakumeen %64,2rentzat eta gizonen %72,2rentzat, lehiaketetarako bidaiak estres iturri dira.

14 Irudia. Lehiaketetarako bidaiak estres iturri dira? Iritzia.



Elkarriketatutako emakume baten ustetan, adinarekin, bidaiak, estresa eragiten duten zerbait bilakatzen dira; gazteenak, ikasketekin uztartzeko unean arazotzat hartzen du, martxa hartzerakoan, baina ez omen zaio kostatzen, taldearekin harreman ona du-eta. Beste baten esanetan, taldea baturik ez dagoenean izaten dira bidaiak estres iturri.


Emakume kirolari batek dio gainontzeko kirolariek baino denbora gehiago behar duela bidaietarako, ezin baitu hegazkin bat hartu eta besterik gabe alde egin; kotxea hartu beharra du, lehiaketako ontzia aldean hartuta. Uneren baten, bidaiak, ikasketak eta kirola uztartzeko oztopo izan direla uste du, unibertsitateko irakasleak ez baitziren bere bidaien iraupena ulertzeko gai.

Kirolari izatea eta ikasketak uztartzea

Emakumeen %77,7k eta gizonen %63,3k uste dute ikasketak eta goi-mailako kirola uztartzea arazo bat dela.

15 Irudia. Goi-mailako kirolari izatea eta ikasketak uztartzea arazo bat da?

Iritzia.



Iturria: Egileak berak egin

Elkarriketatutako emakumezko kirolari bik, kirolarekin lotutako goi-mailako ikasketak dituzte. Jarduera biak uztartzean izandako erraztasunei eta zailtasunei buruz galdetzean, irakaslearen araberrako desberdintasunak –ulermen eta laguntza gehiago edo gutxiago-- aipatu dituzte:

“Ikasi nuen karreran (kirolarekin zerikusia zuen), batezbesteko nota kontuan izanda gainontzeko ikasleak bezala sar nintekeen, baina errendimendu handiko kirolari legez sartu nahi izan nuen, azterketetako datak eta antzekoak aldatzeko erraztasuna izango nuen-eta. Behin, azterketa baten datak Munduko Txapelketarako puntuagarria zen Munduko Kopakoarekin egin zuen bat. Irakasleari azterketa eguna aldatzeko eskatu nion, eta ezetz. Ez da ohikoa,

baina sutan jartzen zaitu, are gehiago karrerak kirolarekin zerikusi zuzena duenean”.

“Erraztasunak? Denetarik dago. laz bi hilabete igaro nituen Huelvan kontzentratuta eta seihilekoaren aldaketarekin batera suertatu zen. Heldu nintzen eta irakasle batek zerrenda pasatu zuen klasean...<Isabel²⁵ hemen da?... Jakin ezazu nik ez dizudala inolako laguntzarik emango, besteek egin duten bera egin beharko duzu...azterketa egin beharko duzu”>... Oztopoak jartzen ari zela pentsa nezakeen ia. Kontraste bat da, izan ere beste irakasle batek zera galdetu zidan behin: <”zer moduz? ...goi-mailako kirolaria zara... gaintitu ahal izateko hau edo beste honako hau egin beharko duzu....>””.

Irakasleekiko harremanetan, kirolariak gizartean duen entzuteak eragina baduela uste dute:

“...Egiten duzun kirol motak eta nor zarenak ere badu zerikusia. Baldintza berak izan behar genituzke, inork ez daki bakoitzak zer entrenatzen duen, zer lehiatzen duen edo zer behar duen”.

²⁵ Lekuak eta izenak aldatu dira, kirolarien nortasuna zaintze aldera.

Egiturazko laguntza eta zailtasunetatik haratago, kontua ondo antolatzea dela diote kirolariek, eta jarduera biak uztartzea posible dela, nahiz eta haien hitzei erreparatuz ikasketak atzenik gabeko estres iturri direla antzeman.

“Batzuetan zaila da, baina ondo. Praktikak ez egiteko aukera eman didate, arratsaldean entrenatu beharra dudanean oso nekatuta heltzen naiz-eta... baina gustura nabil, neuk nahi bezala. Haurra nintzenetik nahi izan dut kirolarekin zerikusia duen zerbaitetan aritu... batxilerra arte ondo neraman, baina orain zailagoa da: hamabost eguneko bidaiak... dagoeneko ez da asteburua bakarrik... galduta heltzen zara klasera... eta berriro erritmoa hartu orduko beste bidai bat...”


Emakumea den nukleo entrenatzaile batek, goi-mailako kirolari izatea eta ikasketak uztargarriak diren ustea du; kirolari bakoitzak hartzen duen ardurak eta ahaleginak zeresan handia du bere iritzian.

“Jokalariek ondo uztartzen dituzte haien kirolari profesional jarduna eta ikasketak. Nahi duenak egin lezake. Antolatuz gero bere kontua izaten da. Hemen karrera duten emakumezko jokalariek asko dago, baina bi dituztenak ere”.

Lesioak

Emakumeen %71,4k eta gizonen %52,9k, haien kirol ibilbidean zehar lesio larriren bat izan dutela ziurtatu dute.

16 Irudia. Lesio larriak izan dituzten kirolariak, ehunekotan




Iturria: Egileak berak egina

Lesio batek lehiaketatik kanpo utzitako batezbesteko denbora, 5,6 hilabetekoa da emakumeen kasuan, eta 5,4 hilabetekoa gizonezkoenean.

Lesioa izan bitartean kirolariek izan zuten ardurarik handiena, bai emakumezkoen kasuan eta bai gizonezkoenean, kirol ikuspuntutik eta fisikoki errekuaratzea zen (emakumeen %41,67k eta gizonen %42,8k).

17 Irudia. Lesioak iraun bitarteko ardura nagusiena



Gizonen %28,5ek eta emakumeen %16,6k alde ekonomikoa aipatu du lesioei lotutako arduren artean. Bestalde, emakumeen %25ek eta gizonen %14,2k psikologikoki indartsu mantendu beharraren ardura ere aipatu dute.

Gizonen %14,2k eta emakumeen %8,3k bakarrik erakutsi dute etorkizunak ardura eragiten diela, baina kontuan hartu beharrekoa da bai alde ekonomikoak eta bai errekupeazio fisikoak, biek dutela etorkizunari begirako itxaropenekin lotura estu bat.

Hala eta guztiz ere, eta aurrerago ere aipatu den bezala, lesio garaian emakume kirolariek izan duten ardurarik handiena haien kirol maila berreskuratzea izan da, eta honekin batera, goi-mailako kirolari izateagatik *Fundazioak* emandako beka ez galtzea.

“Ebakuntzetako bat hondamena izan zen...hanka oso txarto eduki nuen... orduan Segovian nengoen, entrenatzen, kirola besterik ez nuen egiten... niretzat iragana eta geroa hantxe banatu ziren... Zera esan nion neure buruari:<”etxera noa, nahiz eta berriro ezin inoiz lehiatu”>”.

“Maila bera lortzeko gai izango ote nintzen beldur nintzen, Mundialera joaterik izango ote nuen ala ez... Taldean asko lagundu zidaten”.

“Akabatzen ez bazaitu indarturik irteten zara... pertsonen babesa oso da garrantzitsua... Argia ikusi beharra daukazu, motibazioak bilatu, egunerokotasunean laguntza sentitu... Entrenatzailea laguntza handia izaten da... Zalantzak azaltzen dira:<”Lehengo bezala ibiliko ote naiz?, maila bera berreskuratuko al dut?”>”.

Nukleo entrenatzaileek ere gauza bera pentsatzen dute, aurreko kirol maila bera lortzea izaten dela ardurarik handiena, baina lesioei aurre egiteko unean emakumeek eta gizonezkoek hartzen duten jarreran zera ikusten dute, desberdintasunik egon badagoela:

“Neskekin ez da hain erraza izaten, mutilak hotzagoak eta sinpleagoak dira. Neskek gehiago pentsatzen dute gauzen inguruan”.

Goi-mailako kirolari izatetik gehien eta gutxien atsegin dutena

Kirolari izatetik gehien atsegin dutena azaltzean bat datoz gizonak eta emakumeak: kirola lanbide bihurtu ahal izatea dela atseginena (gizonen %39,1 eta emakumeen %28,5).

9 Taula. Goi-mailako kirolari izatetik gehien atsegin dutena

	Gizonek	Emakumeek
Kirola-ogibidea-bizimodua	%39,13	%28,57
Bidaiaitzea	%26,09	%14,29
Lehiaketa	%17,39	%28,57
Helburuak eta emaitzak	%8,70	%7,14
Beste batzuk	%8,70	%21,43

Iturria: Egileak berak egina

Hala ere, lanbide izatea bezain garrantzitsua da emakumeentzat lehiaketa (%28,5). Gizonek, aldiz, balorazio handiagoa eman diote bidaiaitzeari lehiaketari baino.

Alderdi hauez gain, goi-mailako kirolari izateak ematen dien posizio soziala ere atsegin dute emakume kirolariek; kalean jendeak ezagutzea eta zorionduak izatea atsegin dute.

Goi-mailako kirolari izatetik gutxien atsegin dituzten gauzak aipatzerakoan ere bat datoz emakume eta gizonak: kirolak eskatzen dien denbora eta dedikazioa (%26,3 eta %40 hurrenez hurren). Emakumezkoentzat, gutxien atsegin dituzten gauzen artean bigarren lekuan alderdi ekonomikoa aurkitzen da (%21). Gizonezkoek ez dute kontu hau ia aipatu ere egiten (%5ek bakarrik).

10 Taula. Goi-mailako kirolari izatetik gutxien atsegin dutena

	Gizonek	Emakumeek
Denbora / Dedikazioa	%40,00	%26,32
Exijentzia, presioa	%15,00	%15,79
Beste batzuk	%15,00	%15,79
Lagunak aipatzen dituzte	%10,00	%5,26
Sakrifizioa	%10,00	%5,26
Familia aipatzen dute	%5,00	%10,53
Ezegonkortasun ekonomikoa	%5,00	%21,05


Iturria: Egileak berak egina

Emakume kirolariek beste kontu batzuk ere aipatu dituzte, lesioak eta beti jendearen ahotan egotea esaterako.

Emakumezko ala gizonezko goi-mailako kirolari izatea. Alderik ote dago?

Gizonen %68,7k eta emakumeen %42,8k baietz uste dute, goi-mailako kirolean berdina diola emakume ala gizon izateak.

18 Irudia. Emakumezko ala gizonezko goi-mailako kirolari izatea, berdina ote da?



Elkarriketatuak izan diren emakume kirolariek, goi-mailako kirolaz hitz egiten dutenean, emakume izateak gauzak zailtzen dituen ustea dute:

“Zailtasunak maila hauetan... garena garelako baloratu gaitzatela, langileak garela eta honetan egiten dugula lan... Badago jendea zera uste duena: <”begira hauek zer ondo, nahi dutena egiten dute eta gainera kobratuz, zelako zortea”>... langileak gara, jardun honetan profesionalak”.

“Behin batzar bat izan genuen federazioarekin, ez zebiltzan ondo diruz antza.... nik zera eman nahi nuen aditzera, inork ez duela lan bat onartzen ordainsaria zein izango den jakin gabe... baldintzen arabera esaten dugu baietz edo ezetz denok.... Ni ezin naiz kontzentrazio batetara joan ordainsaritan zer jasoko dudan jakin gabe. Ez da diru kontua bakarrik, gauzak ondo egin behar dira... profesionaltzat hartu gaitzatela. Lan bat da. Gizonekin ez da hau gertatzen. Egia da, gizonak kiroldegi gehiago betetzen dituzte, oihartzun gehiago dute, publizitate gehiago... betiko kontu bera. Horren aurka egiterik ez dugu, baina ez gaitzatela konparatu, guk ere geurea nahi dugu, ezin dugu orain hamar urteko bera kobratu”.

“Ezagutzen zaituenak seriotan hartzen zaitu, badaki zertan ari zaren, zeinen zaila den... Baina gainontzekoan, jendeak ez daki ezer, ez zaituzte ezagutzen, ez dakite zure palmaresa zein den...”.


“Gizarteak eta jokalariek eurek ere profesionaltzat jo behar dute haien burua, hori falta da. Eskakizun hau derrigorrezkoa da... egiten dutenagatik ordainsaria jasotzen dute bai, baina ez horretatik bizitzeko adina. Exijentziari eta tratamenduari dagokionez profesionalak dira, baina amateurak kobratzeko unean... Zaila da

emakumeek hau ogibide bezala ikustea... Beharrezkoa da pausu hori ematea. Eta gizarteak ere berdin ikus dezala. Bitartean, etorkizunari begira prestatu beharra dute, aurrera jotzeko euskarri bat behar dute-eta. Emakume kirolariek (kirol horretakoak) ez dute lan-hitzarmen kolektiborik eta haren eskean ibili beharra dute... Aurrekontua da arazoa. Baina lan-hitzarmen kolektibo bat sartzen bada eta kluba desagertzeko zorian jartzen bada, ba desager dadila”.

Fundazioko bekari buruzko iritzia

Gizonen %72,2k eta emakumeen %46,1ek *Fundazioak* emandako bekaren zenbateko ekonomikoa nahikoa ez denaren iritzia dute.

19 Irudia. *Fundazioak* emandako beka nahikoa ote da? iritzia



Elkarriketatuak izan diren entrenatzaileek ez dute bekaren zenbatekoa baloratu nahi izan, baina hauek lan arloan sor lezaketen ezegonkortasunaren inguruan eman dute haien iritzia. Kirol Kontseilu Gorenak ez bezala, *Fundazioak* laguntzak ematen ditu aurrez ezarritako helburuak lortze aldera; kirolariengan sinestea beharrezkoa dela uste dute, emaitzak lortze aldera laguntza eskainiz. Horrez gain, kirolariek Gizarte Segurantzari kotizatu beharko luketela uste dute.


Fundazioak eskaintzen duen beka bidezko laguntzari dagokionez, elkarriketatutako entrenatzaileek ontzat ematen dute, berrikusi beharra eta hobetu beharra dagoela ikusten duten arren. Izan ere, haien esanetan, alde handiak ei daude taldekako eta banakako modalitateen artean.

“Selekzioarekin jokatu ahal izatea edo ez izatea, eta nazioartekoetan parte hartu eta emaitzak izatea ez dago norbere esku bakarrik”.

Fundazioan dauden entrenatzaileak beldur dira lan arloan duten ezegonkortasuna dela-eta, erabaki politikoaren menpe dagoen programa bat dela uste dute.

Babesleak

Bai gizonak eta bai emakumeek, arazoak dituzte babesleak aurkitzeko unean. Gizonezkoak dira, emakumezkoekin alderatuz, arazo gehien aurkitu dituztenak (%83,3 eta %71,4 hurrenez hurren).



Hala eta guztiz ere, elkarriketatutako emakume kirolarien esanetan, emakumeek eurek izaten dituzte babeslea aurkitzeko zailtasunik handienak orokorrean:

“Emakumeek gehiago erakutsi beharra dugu emaitza edo onarpen maila bera izateko”.


“Nik neutaz hitz egiten dut. Neska naiz eta ez dut sekula babeslerik lortu. Saiatu saiatzen zara, eta baietz diote baina... esadazu behingoan ezetz eta kito... Badaude desberdintasunak, baina ez gizona edo emakumea izatearren, batekoa edo bestekoa izateak eta momentuak berak ere, zerikusi handia du”.

“Gizonek errazago dute, jarraipen zabalagoa dute, publizitate gehiago... Guk agian gehiago jarri beharko genuke gure aldetik, baina hala eta guztiz ere, errazago da babeslea aurkitzea gizonentzat”.

Amatasuna

Gizonezkoen %46,6k eta emakumeen %100ek uste dute amatasuna arazo bat dela goi-mailako kirolarientzat.

21 Irudia. Amatasuna arazo bat al da emakumezko goi-mailako kirolarientzat? Iritzia



Iturria: Egileak berak egina

Elkarriketatutako emakume kirolariek, momentua noiz den ebaztea zaila dela adierazi dute. Ama izan den batentzat izan ezik, besteentzat zaila da pentsatzea, ez haurdunaldiagatik bakarrik, bidaiekin eta lehiaketekin uztartu ezinagatik ere bai. Hala eta guztiz ere, denek adierazi dute arautua egon beharko zela eta nahi duenak ama izateko aukera izan beharko lukeela. Badakite zaila dela, ezin zaitzakeela inork ordezkatu, beste lanpostuetan gertatzen den bezala, baina plangintza bat eginez gero aukera ikusten dute.

Orokorrean, nahiz eta amatasunarekin zerikusia duen zerbait bezala agertzen den, berriro aurreko kirol maila lortzea ez da arrazoi esanguratsuena, antolaketarekin zerikusia duten beste kontu batzuk daude aurrerago (zainketarako elkar ulertzea).

“Bederatzi hilabete dira, gehi osatzeko behar den denbora. Ia bi urteko galera... Nahi duenak ahal izan beharko luke, bai... ez dut neuretzat ikusten... baina ezagutzen ditut ama direnak... Bai, bai, posible da ama izatea eta berriro lehengo kirol maila lortzea. Erakundeek kontuan izan beharko lukete hau”.

“Nik ez dut inoiz izan argi momentua... Zelan gera ninteko urte betez?... Eta gero, zer? Hamabost egunero joan zoaz... nazioarteko jokalaria izana da nire bikotea ere... nola planteatu? Hamabost egunik behin haurra zure amarekin utziz?”.

“Haurrek behar duten arreta dela eta, ez dago ia haurtzaindegirik eta oso garestiak dira”.

“Bakoitzaren kontua da, baina arautu beharra dago... Ez da gaixotasun bat, kirolariak dira eta berehala errekuiperatzen dira”.

Batzuek ez dute ikusten, edo zail ikusten dute amatasuna eta goi-mailako kirolari izatea uztartzea.

“Kontu biak uztartzea zaila da”.

“Erabaki itzela da, eta bakoitzaren arabera, bizimodu biren artean erabaki beharra izaten duzu”.

“Gehienetan, kirolari bizitza amaitu artean albo batera utzi behar izaten da”.

“Amatasuna heltzean kirola utzi beharko dut”.

Amatasunak sor dezakeen ezegonkortasun ekonomikoak kirolariak arduratzen ditu.

“Kirolari batek ama izateko erabakia hartzen badu laguntza ekonomiko guztiak galduko ditu, eta bide batez, baita behar bezala entrenatzeko aukerak ere”.

“Pentsatu beharra dago, noiz den egokien, gutxienez urte bete lehiatu gabe, eta beraz, laguntza ekonomikorik jaso gabe”.

“Haurdunaldia eta gero zaila delako lehiaketetara bueltatzea, eta laguntzak emaitza ikusgarriren bat lortu duzunerako baino ez direlako. Goian zaudenean ezinezkoa da geratzea, eginez gero betiko izaten da”.

Elkarriketatua izan den kirolarietako bat ama izan da, eta berarentzat esperientzia oso positiboa izan da:

“Oso ondo, mesede ere egin zidan... Psikologikoki deskonektatzeko balio izan zidan, maila muskularra berreskuratzeko eta buru barruan

gauzak birkokatzeko. Umea izan eta gero, berriro lehiaketetara bueltatzeko asmoa nuen –uste nuena baino gehiago itxaron behar izan dut, astiro joaten da dena-, baina Fundazioak lagundu egin zidan beka errespetatuz. Eta aurten programa barruan entrena nezake berriro... laguntza ekonomikoarekin entrena nezake”.

Gizonak eta emakumeak ez datoz bat amatasunaren ikuspuntuari dagokionez, baina batzuek onartzen dute oztopo bat izan daitekeela goi-mailako kirolarientzat.

“Entrenatzeko denbora gutxiago uzten dizulako”.

“Denbora luzez geldirik egon beharrik, baina hobe haiei galdetzen badiezu”.

“Denbora batez kirolik ezin eginda egon behar dutelako, eta gero haurra zaintzea dator”.

“Lehiaketatik gehiegi baztertuko zintuzke”

Beste gizon batzuek, ordea, ez dute arazo bat denik uste.

“Dena behar bezala uztartu daitekeelako”.

“Beste aukera bat da”.

“Emakume bakoitzak ikusi behar du norbere buruarentzat ona zer den”.

Etorkizuna

Fundazioko kirolari gehienek nahiko lukete, bai gizonek eta bai emakumeek, kirolarekin zerikusia duen lanbideren bat izatea etorkizunean. Proposatutako aukera hauen artean (entrenatzaile, epaile, kudeatzaile) kirolariek hautatu dutena ageri da, sexuaren arabera eta ehunekotan emana:

11 Taula. Etorkizunean, kirolarekin zerikusia duen lanbideren bat eduki nahi luketen emakume eta gizonak, ehunekotan

	Entrenatzaile	Epaile	Kudeatzaile
Emakumeak	%53,8	%7,1	%61,5
Gizonak	%72,2	%11,1	%77,7

Iturria: Egileak berak egina

Aukera hauetakoren bat etorkizunean bideragarria izateaz duten iritzia eskatzean, gizonen %77,7k erantzun dute etorkizunean kirol arloan profesional moduan lan egiteko aukera posible ikusten dutela, emakumeen artean %71,4k uste dutenean.

Goi-mailako kirolari izateari uztean kirolarekin zerikusia duen lanbideren bat izan nahiko luketen galdetuta, elkarriketatutako lau emakumetik hiruk erantzun dute baietz.

Zertan lagun diezaieke kirolariei?

Emakumeen %80k eta baita gizonen %80k, *Fundazioak* haien etorkizuna bideratzen lagun diezaiekeela uste dute. Zertan lagun dezakeen zehazterakoan, formazioa eta goi-mailako kirolari garaia amaitzean lana aurkitzeko beharko duten laguntza aipatzen dituzte aurrena, eta bereziki, haien profilarekin bat etorriko litekeen zerbitzuren bat beharko lukeen pertsona edo enpresarekin kontaktuan jartzeko modua eskatzen dute.

“Fundazioak honetan laguntzeak garrantzi handia duela iristen diot. Formazio kurtsoak... Niri egun bereetan tokatu zitzaizkidan entrenamenduak eta ikastaroak... Ezin zenezake dena utzita alde egin...”.

“Bitartekari izanik, dituen kontaktuekin... batzutan errazagoa izaten da kirolariei lana edo kontaktuak bilatzea... Askotan ahoz-ahokoa erabiltzen da. Zerbitzua behar duenaren eta eskaintzen duenaren arteko zubi-lana egin lezake Fundazioak. Negozioa kirol munduan. Baita berrikuntza eta enpresa ideiak ere”.

“Kirol ibilbidea bukatu eta lan-merkatura igarotzen direnerako laguntza eta euskarri bat behar dute”.

Baita ere, *Fundazioak* kirolariei norbere buruaren irudia ezagutzera ematen lagundu beharko liekeela adierazi du kirolariren batek.

5.5 Kirol egokitua

Fundazioan beka duten kirol egokituko 10 kirolaritik lauk (3 gionek eta emakume 1ek) erdi-egituratutako galdera-sortaz baliatuz hartu dute parte ikerketan.

Lau horietatik bik (emakume batek eta gizon batek) erdi-mailako ikasketak dituzte eta beste biek, oinarrizkoak. Emakumeak eta gizonezko batek kirolarekin zerikusirik ez duen lanaldi partzialeko lan bat dute, baina ez omen dute arazorik jarduera biak uztartzeko. Hala eta guztiz ere, goi-mailako kirolariek dituzten arazoez galdetzean, lana eta entrenamendua uztartu ezinik ibiltzen dela dio emakumeak denbora falta dela-eta.

Bai emakumeek eta bai gionek, kirola egiten hasi zirenean babesak nork eman zien oroitzean, familia dakarte orain. Baina gizon batek, batere laguntzarik ez zuela izan adierazi du. Hastapenetako oztopo haiek gogoratzean, emakumeak igerilekurako bidea dakar gogora. Gionek aldiz, formazio urriko teknikariak, kirol-materiala erosteko klubaren laguntza ekonomiko falta, etb., dituzte gogoan.

Ezintasunen bat duten pertsonak entrenatzeko gaitua den teknikariak aurkitzeko zailtasunak arazo izaten jarraitzen du gaur egun ere. Entrenamenduetarako joan-etorrietan behar duten denbora ere, kirol jardunerako oztopo bat dela adierazi dute. Hain da oztopo, ezen goi-mailako kirolari izatetik gutxien atsegin duten gauzetariko bat den.

Gizonentzat ez bezala, lehiaketetarako bidaiak estres iturri dira emakumeentzat. Psikologikoki zentratzen ez diotela uzten adierazi du gizon batek; beste batek, material guztia garraiatzea gogaikarria dela dio; eta hirugarren batek, lehiaketetara bera bakarrik joaten dela, eta gainera gidatu beharra izaten duela adierazi du.

Goi-mailako kirolari izatetik gehien atsegin dituzten gauzen artean onarpen soziala –emakumeak aipatutako arrazoi bakarra-, jardunarekin gozatzea, babesa sentitzea, diziiplina eta lagunak daude.

Kirolari gehienek uste dute *Fundazioak* egiten duen segimendua egokia dela, nahiz eta gizon batek segimendu honek hobea izan beharko lukeela uste. Gainera, aspektu ekonomikoari begira, ezintasun larriren bat duten kirolariek, uneoro haien ondoan egon eta lagunduko dien pertsona baten beharra dutela gogorarazi nahi die Fundaziokoei.

Hiru gizonek iritzi bera dute: *Fundazioak* ematen duen bekaren zenbateko ekonomikoa ez da nahikoa. Emakumeak baietz iristen dio. Gizon bik diotenez, goi-mailako kirolean berdin dio gizona ala emakumea izateak. Beste gizon bat eta emakumea ez datoz bat aurrekoarekin. Bestalde, amatasuna arazo bat dela adierazi dute gizon bik, emakumezkoak entrenamenduetatik aldentzen dituelako eta ondorioz beka galtzeko arriskua dutelako; emakumeak dio ez dela arazo bat, “bizilegea” dela.

Etorkizunari begira zer esperantza duten galdetzean, gizonek kirol emaitzak jasotzea eta haien kirolean entrenatzea eta irakastea dute buruan. Emakumeak, ordea, ikasitakoan lan egin nahiko luke.

Fundazioko gainontzeko kirolariek ez bezala, erretiroa hartzeko garaia heltzean, gizarteak haien kirolari izaera eta lortutako garaipenak ahaztuko dituen beldur dira kirol egokituko kirolariak.

“Kirolari bezala ahaztuak geratzea eta ezindu bat baino ez izatea”.

“Jendeak nire garaipenak ahaztea”.

Lan arloari dagokionez ere, beldur diote etorkizunari, eta zentzu horretan *Fundazioak* lagun diezaiekeela uste dute, ekintza jakin batzuk sustatuz, trebakuntzaren bidez, laguntza psikologikoa emanez, aholkatuz edo lan integrazioan lagunduz.

6. EZTABAIDA

Ikertutako gaiei dagokienez, galdera-sortak eta elkarrizketak aztertu ondoren lortu diren emaitzek emakume eta gizonen artean dauden desberdintasun argiak agerian utzi ditu.

Ikasketan parte hartu duten emakumeen %50ek eta gizonen %0k dituzte goi-mailako ikasketak, eta hau ez dator bat gizarteko ohiko portzentajeekin. Izan ere, EAEn eta 2010 urtean, goi-mailako ikasketak dituztenen %100 aztertuz, %51 emakumeak dira eta %49 gizonak²⁶. Ildo berean, EAEn 2007/2008 ikasturtean unibertsitatean

matrikulatu direnen kopuruak aztertuz gero, argi ikusten da gizonezkoen eta emakumezkoen kopurua parekoa dela (emakumeak %55 eta gizonak %45)²⁷.

Ikasketan parte-hartu duten emakumeen %50ek eta gizonen %0k dituzte goi-mailako ikasketak.

Kirol ibilbidean zehar, etorkizunari begira ikasketak izateak duen garrantzia barneratu dute BAT-eko emakume kirolariek.

Beraz, goi-mailako kirolarien kasuan eta, kirola egiteari dagokionean, sexu bakoitzak dituen itxaropenak jasotako heziketarekin lotuta daude, eta hauek eragina dute oraindik ere. Diez eta Guisasolak (2002) adierazten duten bezala, emakumeek nahiko barneratuta dute kirola egitea haien bizitzako lehenengo etapako kontua dela, eta beraz, haien ustetan etorkizunari begira onena izango denaren

arabera arrazionalizatzen dute daukaten denbora. Zentzu horretan, nahiz eta goi-mailako kirolari izatera heldu diren, etorkizunari begira goi-mailako ikasketak izateak duen garrantzia barneratuta dute *Fundazioko* emakume kirolariek. Behin eta berriro utzi dute argi alderdi hau elkarrizketetan.

²⁶ Iturria: www.eustat.es.

²⁷ Iturria: "Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak 2008", www.emakunde.euskadi.net.

BAT-en beka duten gizonen %16,6k eta emakumeen %30,7k lana dute.

Goi-mailako kirolari izan eta lan bat edukitzearekin bat dator baieztapen hau. *Fundazioan* beka duten gizonen %16,6k eta emakumeen %30,7k dute lana. Lana duten emakumeak lana duten gizonen bikoitza dira ia. Lana duten emakumeen %50ek eta gizonen %33,3k denbora partzialean egiten dute. Litekeena da goi-mailako kirolariak arazoak izatea lanaldi osoko behar bat aurkitzeko, baina ikerketan jasotako datuek erakusten dutenez, gizartean bertan ere, aktiboan dauden pertsonen kontratuetan desberdintasunak daude orokorrean (denbora partzialeko kontratuen %86,3 emakumeenak dira)²⁸. Honek, sexu bakoitzak dituen irabazietan eta etxeko lanen banaketan eragina izaten du.

Kirol ibilbidean zehar etxeko lanetan lagundu beharrari buruz galdetzen zaienean, jasotako erantzunek agerian uzten dute oraindik ere badirela heziketa arloko desberdintasunak, eta haurrak zirenetik egiten dutela lan gehiago etxean emakumeek. Desberdintasun hauek transmititzeko mekanismo bat baino gehiago dago: sexu bakoitzari zer exijitzen eta zer onartzen zaion, gizarte roletan oinarritutako familia ereduak, etab. EAEko biztanleei buruzko datuak bat datoz baieztapen honekin. Izan ere, emakumeen %86k eta gizonen %30ek egiten dituzte normalean etxeko lanak²⁹.

Familiarekin jarraituz, honek badu eragina hurrek kirolarekin duten harremana zehazterakoan. *Fundazioko* kirolariekin egindako ikerketan, gizonezkoentzat familia izan da kirola egiten hasteko arrazoietan bigarrena; emakumeek aldiz, hirugarren edo laugarren lekuan aipatzen dute. Gainera, kontuan izan behar da familiak, kirolari hastapenetan ez ezik, gerora ere laguntza emateko unean garrantzi handia duela. Gaur egun goi-mailan lehiatzen diren kirolariak direla ahaztu gabe –eta beraz, dauden

²⁸ Iturria: www.eustat.es.

²⁹ Iturria: "Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak 2008", www.emakunde.euskadi.net

tokira heltzeko laguntzak izan dituztela ahaztu gabe-, familiarengandik jasotako babesa kasu bakoitzean desberdina izan dela erakusten dute emaitzek; emakumeen

Familiak eragina du neska eta mutilek kirolarekin bizitzan zehar duten harremanean.

Emaitzen arabera, familiaren babesa sentitzean ezberdintasunak daude; emakumeen %64,2k eta gizonen %72,2k familiaren laguntza aipatu dute.

%64,2 eta gizonen %72,2 aipatu dute laguntza eduki izana.

Diez eta Guisasolak (2002) burututako ikerketak agerian utzi zuen aitek eta amek onartu egiten dutela neskato eta mutikoek heziketa desberdina jasotzen dutela familia barruan, eta aita-amek kirola ulertzeko duten moduak eragin zuzena duela gero neskato eta mutikoek kirolarekin izango dituzten harremanetan. Gonzalez eta Oteroren (2005) esanetan, gurasoak dira alaben eta kirolaren arteko oztoporik handiena,

zuzenki baldintzatzen dituzte-eta. 2005 urtean Avento³⁰ burutu zuen ikerketa batek, aita-amen eraginez neskato eta mutikoek heziketari begira izaten dituzten ezberdintasunak agerian utzi zituen; katarroa hartuko zuten aitzakiaz euria zenean alabek eskubaloian jokatzetik nahi ez zuten amek ez zuten gauza bera esaten semeek futboleko jokatzeko zutenean.

Kirola egiten hasteko arrazoiei begira garrantzi handia du honako hau azaltzeak: itxura estetikoak duen garrantzia –argaltzea- eta adiskide taldearen eragina dira *Fundazioko* emakume kirolariek aipatzen dituzten arrazoiak bi. Gizonezko batek ere ez ditu arrazoi hauetako bat bera ere aipatu. Orokorrean, neskatoek kirolarekin duten harremana oso lotuta aurkitzen da lagun-taldearekin (Díez eta Guisasola, 2002, Moreno eta Martinez, 2006).

Fundazioan, gizonak baino emakume gehiago izan dira kirol ibilbidean zehar klubez aldatu direnak (%50 eta %78,5, hurrenez hurren). Klub aldaketa kirol modalitate aldaketarekin lotuta egotea izan daiteke emakumeen portzentaia handiagoa izatearen

³⁰ Avento Consultoría (2005). *Ermuako udalerriko Kirol arloan emakume eta gizonen egoeraren Diagnostikoa*. Ermuako udalarentzat burututako lana.

azalpena. Argumentu hau bi eratarazko arrazoitu daiteke: batetik, gizonak ez bezala –gehienez hastapenetako kirol modalitate berean jarraitzen dute (%55,5)- *Fundazioko* emakume kirolariak beste kirol modalitate bat hautatu zuten aurrerago (%42,8k). Eta bestetik, kirola uztearekin lotu genezake, hau da, Cecchini eta beste batzuen (2005) arabera, “zapeo” izeneko kirol-uztea ohikoagoa da emakumeengan gizonazkoengan baino. Kirol-uzte honek ez du jarduera fisikoa uzten denik esan nahi, jardueraz edo modalitatez aldatzen dela baino³¹.

Emakumeen kluba aldatzeko arrazoi gehienak (entrenatzailearekin edo giroarekin ezeroso egotea) harremanekin zerikusia dute.

Gizonen artean, aldiz, arrazoi nagusia fitxaketa da.

Klubez aldatzeko arrazoiak artean, gizonen %45,5ek eta emakumeen %16,6k beste klub baten aldetik kirolariaren berarenganako interesa aipatzen dute. Gizonazkoen portzentajea emakumezkoena baino handiagoa izatearen arrazoiak, kirol esparruan, orokorrean, emakumeak baino gizonazkoak fitxatzeko kultura handiagoa dagoela da. Bestalde, taldez aldatzeko emakumeek eman dituzten hainbat arrazoi –gizonak aipatu ere egiten ez dituztenak-, entrenatzailearekin edo giroarekin gustura ez egotea esaterako, gai honi buruz hainbat autorek egindako baieztapenekin bat datoz. Ildo

honetan, federazio eta kirolletako klubak oso maskulinizatuta dauden egiturak direla diote Mosquera eta Puig-ek (2002)³², eta erakunde hauek haien ekintzak aurrera ateratzeko zailtasun ekonomikoak dituztenean emakumeak izaten direla kaltetuenak, ordura arteko laguntzak gutxituz (entrenatzaileak, fisioterapeutak, etab.). Era berean eta Fontecharen (2003) esanetan, klubetan emakume kirolariak jasaten duten diskriminazioa ez da erabaki ekonomikoetan bakarrik antzematen, egiturazko erabaketan ere nabaritzen da. Ondorioz emakumei, ordutegi txarrenak, instalazio eskasak eta urrunen daudenak, behar besteko gaikuntza ez duten entrenatzaileak, etab. ematen zaizkie. Teknikari gaituen gabezia, entrenatzaileekin duten harrema eta giroa izaten dira kirolarien motibazioan, eta bide batez kirola uzteko erabakia

³¹ Azurmendi, A., 2009, aip. ob.

³² Azurmendi, A., 2009, aip. ob.

hartzerakoan, eragina duten aldeak (Díez eta Guisasola, 2002; Sarrazin eta besteak, 2002)³³.

Nerabezaroan lagunek kirola egiteari uzteak zer nolako eragina izan duen aztertzean desberdintasunak antzeman dira; Orokorrean, emakumeekin alderatuz, kirolarekin erlazio estuago bat zuen inguru baten bizi izan dira gizonak (gizonen %66,6 eta emakumeen %21,4). Gazte denboran kirola uzteko arrazoien inguruko ikerketa bat baino gehiago egin da, eta ikertzaile gehienek esanetan kirola uzten dutenen artean emakumeak ei dira gehiengoak. (Fernández, 2001; Mosquera eta Puig, 2002; Cecchini eta besteak, 2005)³⁴.

Nerabezaroan kirola egiten duten emakumeak gizonak baino gutxiago izatearen arrazoiak kirola eta ikasketak uztartzeko zailtasunarekin erlazioan dago, izan ere, *Fundazioan* beka duten emakumeen %37,7k eta gizonen %61,1ek jarduera biak uztartzeko arazoak izan dituztela aitortu dute. Emakundek³⁵ burututako gizon eta emakumeen zifren txostenak dioenez, hezkuntza arloan emakumeek gizonak baino errendimendu akademiko handiagoa dute. Litekeena da, kirola alde batera uzten ez

Gizon gehiagok (%61,1) emakumeek baino (35,7) dio arazoak izan zituela nerabezaroan ikasketak eta kirola uztartzeko.

duten emakumeek jardun biak uztartzeko gai izatea. Hau dela-eta, gizonak baino arazo gutxiago eta kualifikazio handiagoa izan dituzte zentzu horretan. Izan ere, mutilak ikasketetan hala-moduzkoak izan arren gizarteak babestu eta indartu egiten du kirolaria, kirolarekin duten erlazioa erraztuz (Díez eta Guisasola, 2002).

Aurrez ere esana dugunez, kirolek bizi ezingo diren ustea barneratuta dute emakumeek, eta etorkizunari begira, denbora probetxuzkoa izango den zerbituetan inbertitzeari, esan nahi da ikasketak aurrera ateratzeari, garrantzi handia ematen

³³ Ibid 30.

³⁴ Ibid 31.

³⁵ Iturria: "Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak 2008", www.emakunde.euskadi.net

diote. Izan ere ikasketak dira emakume gazteek kirola uzteko arrazoi nagusietako bat (Cecchi eta besteak, 2005; Díez eta Guisasola, 2002; Fernández, E., 2001; Sarrazin eta besteak, 2002)³⁶.

Fasting eta Knorre-k (2005) burututako Txekiako emakume kirolariei buruzko ikerketa baten³⁷ azaltzen zenez, ikasketak, seme-alabak zaindu beharra eta kostu ekonomikoak izan ziren kirol jarduera aurrera eramateko emakumeek aurkitu zituzten oztopoak.

Ikasketen inguruko ardurak gogoan izan dute kirolariek ikerketa guztian zehar, batez ere emakumeek. Elkarriketatutako emakumeen arabera, kirol ibilbide guztian zehar kontuan izan duten gai bat izan da, eta gaur egunean ere, zailtasunak omen dituzte jarduera biak uztartzerakoan, batez ere Unibertsitatean aurkitu duten ulermen falta dela-eta. Baina beharrezkotzat jotzen dute haien etorkizuna bideratze aldera. Kirolariak ikasketetara hurbiltzeko bideak erraztea proposatzen du Fasting eta Knorre-k (2005) egindako ikerketaren txostenak, beste hainbat gauzaren artean, entrenamenduak, lehiaketak eta eskolak bateragarri egingo dituen ikasketa-erregimen malgu bat ezarri.

Emakumeen eta gizonen kirol ibilbidean eragina duen beste faktoreetako bat ereduak dira. Díez eta Guisasaolak (2002) diotenez, gaur egun ez dago emakume kirolarientzako emakumezko eredu ugarririk, gehienak gizonezkoak dira-eta. Kirola egiten hasi zirenean haien eredu nor izan zen galdetzean, emakumeek ez dute kirolari ezagunik aipatu (*aditua den eredu bat*)³⁸. Horren orde, klubean hurbil izan duten eta berarengandik laguntza eta babesa jaso duten pertsonaren bat izan dute eredutzat. Komunikabideetan agertzen diren emakume kirolari famatuen faltan,

³⁶ Azurmendi, A., 2009, aip. ob.

³⁷ Ikerketaren laginean hiru kirolari mota bereiztu ziren: elitekoak, elitekoak ez zirenak eta parte hartzen zutenak. Baina argitaratutako emaitzen-txostenean ez da kirolari-moten bidezko bereizketarik egiten.

³⁸ Kirolaren psikologian, kirolariak motibatze esanguratsuak diren bi eredu bereizten dira: *ezagunak* edo *adituak* diren ereduak (famatuak) edo *hurbileko ereduak* (klub bereko kirolari ezagun bat). Informazio iturria: Buceta, J.M. (2004). *Estrategias psicológicas para entrenadores de deportistas jóvenes*. Madrid: Dykinson-Psicología.

emakume kirolariak *eredu hurbilagoak* hartzeko joera dute. Eredu hauek, sarritan, klubeko kide diren gizonetakoak izaten dira.

Era berean, emakume kirolariak etorkizunari begira dituzten itxaropenetan eragina du honek; gizartean oihartzun handia duen kirolari profesionalen eredurik ez dute, beraz ez dute haien burua kirol profesionalaren arloan idolotzat ikusten, eta gizarteak aitortuko dituen itxaropenik ere ez dute. Bestalde, ereduok, eta batez ere gizonetakoak, ez dira beti kirolariak izaten, kirol ibilbidean zehar badituzte beste eredu batzuk ere, teknikariak (entrenatzaileak), epaileak eta kudeaketa-arduradunak esaterako.

Goi-mailako kirolean emakumea ala gizona izatea gauza bera ote den galdetu eta jasotako erantzunak aztertzean, emakumeek gizonen baino desberdintasun gehiago somatu dituzte arlo horretan. Gizonen %31,2k eta emakumeen %57,1ek gizona edo emakumea izatea ez dela gauza bera adierazi dute. Elkarriketatutako emakumeek gizartearen haienganako onarpen falta, burutzen duten jarduna profesionalizatzearen

beharra eta babesleak aurkitzeko zailtasunak aipatzen dituzte.

Gehiago dira babesleak aurkitzeko arazoak dituzten gizonetakoak (%83,3) emakumetakoak baino (%71,4). Era berean, *Fundazioak* emandako beka nahikoa ez dela uste duten gizonak emakumeak baino gehiago dira (gizonen %72,2 eta emakumeen %46,1). Gainera, ikerketan parte hartu duten gizonen %55,5 eta emakumeen %42,8 familiaren etxean (aita-amen etxean)

bizi dira oraindik, eta kirolarien %16,6k baino ez dute lan bat. Datu guzti hauetatik honako hau ondorioztatzen da: Gizonak emakumeek baino menpekotasun ekonomiko handiagoa dute, *Fundazioak* emandako beka nahikoa ez dela uste dute eta

Emakumeek gizonen baino desberdintasun gehiago somatu dituzte goi-mailako kirolari estatusari dagokionez.

Alabaina, gizon gehiagok azaldu du atsekabea ordainsariari dagokionez.

babesleak aurkitzeko zailtasunak dituzte. Beraz, gizonak ezerosotasun handiagoa agertzen dute ordainsari ekonomikoari dagokionez.

Aurrekoarekin alderatuz, emakumeak independenteagoak direla esan genezake (%57,1 etxetik kanpo bizi da). Baita lana eta kirola uztartzen duten emakumeak gizonak baino gehiago direla (%30,7k dute lana), babesleak aurkitzeko zailtasun gutxiago dituztela, eta ia erdiak *Fundazioak* emandako beka nahikoa den ustea dutela.

Datu hauek erlazioa gordetzen dute sexu batekoek eta bestekoek kirolaren inguruan dituzten itxaropenekin. Aurrerago aipatu den moduan, emakumeek eta gizonak modu desberdinean bizi dute haien kirol ibilbidea, sozializazioak, rolek, estereotipoek eta inguruko jarrerek haien jokabideetan eragin zuzena dutelako une oro. Alde honetatik, emakumeak gizonak baino konformatzeko errazagoak direla pentsa genezake; orain arte gustukoa izan dutelako doan egin duten kirol jarduera bategatik ordainsaria jasotzea luxu bat izango da, kasu askotan, haientzat. Nolabait, haien kirol ibilbidean zehar kirolean profesional izatera heltzea eta hortatik bizitzea ezinezkoa dela barneratu dute. Hipotesi honek azal lezake emakumeen %57,1ek bakarrik uste izatea ez dela gauza bera goi-mailako kirolean emakume edo gizon izatea. Joera hau duela hogeitaz azaltzen zen; Garcia Fernandok (1990) esana da: Errendimendu handiko kirolean motibazioak ez dira berdinak izaten sexu bietako kirolarientzat, gizonak gizartearen aldetik babes gehiago eta kanpo-motiboziorako dosi handiagoak jasotzen dituzte (ordainsari handiagoak, primak, etab.)³⁹.

Amatasuna berebiziko garrantzia duen kontua da goi-mailako emakume kirolarientzat. Emakumeen %100ek eta gizonen %53,3k kirolari karrerarako oztopotzat hartzen dute.

Goi-mailako emakume kirolarien artean berebiziko garrantzia duen kontuetako bat amatasunarena da. Gizonen %53,3k ez du oztopotzat hartzen baina emakumeen %100ek garrantzi handiko gai bat dela irizten diote. Orokorrean, eta emakumeek ez bezala,

³⁹ Azurmendi, A., 2009, aip. ob.

gizonen eta emakumeen artean desberdintasun handirik ez dagoen ustea dute gizonek, eta uste honetan oinarrituz arrazoitu daiteke gizonen jarrera. Hala eta guztiz ere, gizon bakar batek ere ez du aipatu aitatasuna eta haurren zaintza norbere kirol jarduerarako oztopo izan litekeela.

Zalantza gabe, goi-mailan lehiatzen ari diren emakume askok, eta batez ere 25 urte bete eta gero, ama izateko aukeran pentsatzen dute. Aldi baterako kirola utzi⁴⁰ ala denbora bat itxaron, hori izaten dute buruan. Kirolariek aipatutako kezkarik handienak haurren zainketa eta ezegonkortasun ekonomikoa izaten dira, baina erakundeek ere kontuan hartu beharreko gai bat dela adierazi dute, eta arautua egon beharko litekeela⁴¹. Ildo berean, Fasting eta Knorr-en (2005) ikerketen emaitzak aztertzeak, beste batzuen artean, amatasunarekin erlazionatutako honako gomendio hauek egin ziren: Haurrak zaintzeko sostengu ekonomiko bat bermatzea eta haurtzaindegiak jartzea. Hau da, izan ere, *Fundazioko* emakume kirolari batek aipatutako oztopoetako bat.

Goi-mailako kirolaria izatetik emakumeek gutxien gogoko duten bigarren aspektua ezegonkortasun ekonomikoa da. Gizonentzat ezegonkortasun hau, aipatutako arazoen artean seigarren lekuan dago.

Gainerakoan, goi-mailako kirolariek gehien eta gutxien zer duten gustuko aztertzean, sexuaren arabera erantzun desberdinak eman dituzte. Emakumeentzat, ezegonkortasun ekonomikoa da gutxien gustatzen zaizkien gauzetan bigarrena (%21), gizonek ordea, seigarren lekuan jarri dute gai hau (%5). *Fundazioak* emandako beka nahikoa ote den zuzenean galdetzean edo babesleak aurkitzerakoan izan dituzten arazoez galdetzean, gizonek egoera ekonomikoarekin gustura

⁴⁰ Christensen eta besteen (2000) arabera, kirola uztea bizitzan garrantzi handia duten beste gertakari batzuekin batera ematen da, graduazioa, lana, ezkontza edo amatasuna esaterako.

⁴¹ Abuztuaren 20an argitaratutako Goi Mailako Kirolari buruzko 203/2010 Dekretuak, 10 Artikuluko 3 atalean amatasuna aipatzen du kirolarien kontratuaren urtebeteko luzapena eragiteko arrazoi.

ez daudela erantzun dute. Baina goi-mailako kirolarien eguneroko jardunarekin zerikusia duten gai-multzo bat aurkeztean, denbora eta eskatzen duen dedikazioa lehenetsi dituzte.

Horrez gain, aurrez aurkeztutako emaitzekin bat etorritz, alderdi baikorren artean kirola profesional legez bizi ahal izatea da emakumeek gehien azpimarratu duten aukera (%28,8). Elkarriketa kualitatiboen emaitzak eta, beka, babesleen gaia eta amatasuna dela-eta galdera-sortetan emandako datu eta iritziek, baieztapen hau sendotu baino ez dute egiten. Izan ere, emakume kirolariek, haien jarduna profesional bihurtzea lortuko denean gauzatuko den aitortza sozial bat aldarrikatzen dute. Ezegonkortasun ekonomikoa emakumeentzat buruhauste handi bat dela argi geratu da ikerketa guztian zehar.

Lehiaketetarako bidaiak etengabeko estres iturri izaten dira bai emakumeentzat eta bai gizonentzat (%64,2rentzat eta %72,2rentzat, hurrenez hurren). Hala ere, goi-mailako kirolari izatetik gustukoen dituzten aldeei buruzko erantzunak aztertu eta gero, bidaien kontu hau positiboago balioetsi dute gizonek; gizonek bigarren lekuan aukeratu dute goi-mailako kirolari izatearen alde hau (%26k) eta emakumeek laugarren lekuan (%14,2k).

Emakumeek harremanei eta taldeari gehiago begiratzen dien nortasun bat eratzen dute.

Elkarriketatutako emakumeek, taldeko giroari eta harremanei eman diete garrantzia lehiaketetarako bidaiei buruz galdegitean. Emakumeek, sozializazioa dela-eta, harremanei eta taldeari gehiago begiratzen dien nortasun bat eratzen dute. Kirol ibilbidean zehar

taldez edo klubez aldatzeko izan dituzten arrazoiekin ere lotu daiteke hipotesi hau, izan ere, emakumeek gizonek baino maiztasun handiagoz aldatzen baitute klubaren bertako giroa gustukoa ez dutelako. Honen harian, lanez aldatzeko gizonek eta emakumeek dituzten arrazoiak argitze aldera Finantza Azterlanen Zentroak

burututako ikerketa baten⁴² arabera, bizi kalitateak du garrantzirik handiena emakumeentzat, ordainsariaren aurretik. Beraz, hau izan daiteke Fundazioko emakumezko kirolariak haien egoera ekonomikoarekin gizonezkoak baino konformistago azaltzearen arrazoia ere.

Ilido berean, Alonso-Arbiol eta besteek (2009) burututako eta, emakumezkoek kirol erakundeetan duten lidergoari buruzkoa zen ikerketa batek honako hau dio: *“Emakumezko-lidergoa ezaugarritzat duten emakumeak, haien taldeko kideen ongizateaz eta gogobetetasunaz arduratzen dira batez ere, gainontzeko pertsonetikiko harremanen kalitateari berebiziko garrantzia emanez”, eta horrez gain “harremanen aspektua zaintzeko ardura azaltzen dute, eta interakzioak atsegin dituzte, bai zuzendaritza taldeko kideekin dituztenak eta bai federatutako kirolariekin dituztenak”* (Alonso-Arbiol eta besteak, 2009, 15).

Beraz, alde ekonomikoa dela-eta emakumeek duten ardura agerian dagoen arren, mugitzen diren eremuan eta haien arteko harremanetan gustura egoteari balio handia ematen diote. Hain da horrela, ezen lesioak gainditzekoan inguruaren hurbiltasuna eta babesa (familia, entrenatzailea, kluba), eta psikologikoki sendo egotea ere aipatzen duten.

Etorkizunari dagokionez, gizon zein emakumeek kirolean profesional legez jardun nahiko luketeela aipatu dute, batez ere gestioan.

Emakumeen %80k eta gizonen %80k BAT-ek etorkizuna bideratzen lagun diezaiekeela uste dute.

Etorkizunari dagokionez, kirolean profesional legez jarduteko duten nahiarekin (batez ere kudeaketa arloan, emakumeen %61,5 eta gizonen %77,7) bat datoz bai emakumeak eta bai gizonak. Entrenatzaile izateko gogoia ere azaldu dute (emakumeen %53,8k eta gizonen %72,2k). Beraz, kirol munduarekin harremanetan jarraitzeko asmoa erakutsi dute kirolariekin. Fasting eta Knorr-ek (2005) burututako ikerketa baten arabera, emakumeen %57k erakutsi

⁴² Informazio iturria: www.laboris.net/static/ca_carrera_impulso-cambiar.aspx.

zuen entrenatzaile izateko asmoa (ez da kirol maila bereizten), eta elitean ari direnen %38k kirol-kudeatzaile izatekoa. Hau horrela izanik, postu horietarako kirolariak prestatzea, ereduak bistaratzea, kirol erakundeek haien estamentu teknikoetan eta erabaki-postuetan emakumeak hartzeko bideak jartzea, etab. dira ikerketatik ondorioztatu diren gomendio batzuk.

Emakumeen %80ren eta gizonen %80ren ustetan, *Fundazioak* etorkizuna bideratzen lagun diezaieke, trebakuntzaren bidez eta haien kirolari ezaugarriak kontuan hartuta lanposturen bat betetzeko duten erakundeekin harremanetan jarritz gehienbat. Mundu mailan badaude behin kirolari ibilbidea amaitu eta gero, goi-milako kirolariak lan munduarekin harremanetan jartze aldera lan egiten duten ekimenak. Australiako Gobernuaren Athlete Career and Education (ACE) programa da hauetako adibide bat⁴³.

⁴³ Informazio iturria. http://ausport.gov.au/participating/career_and_education

7. ONDORIOAK

Ikerketatik eratorritako emaitzetan argi ikusten denez, kirola gizartearen islatzat hartu behar da, eta beste esparru batzutan dauden desberdintasunak hemen ere agerian geratzen direla. Hare gehiago kirol erakundeak aldaketak egite aldera erresistentzi handia jartzen duten egitura maskulinizatuak direla kontuan hartzen badugu.

Beraz, ezinezkoa da *Fundazioak* beka eman dien goi-mailako emakume kirolarien egoera aztertzea oraindik ere aldatzeko bidean den gizarte androzentriko baten genero rolek eta estereotipoek hauekiko izan duten eragina kontuan hartu gabe. Azken finean, haiek gainditze aldera gizarte osoaren sentsibilizazioa eta uste osoa behar duten egiturazko oztopo batzuen aurrean aurkitzen gara.

Ondorioz, emakume kirolarien gaur egungo egoera, edo hobeto esanda, gaur egungo egoeraz kirolariak beraiek duten pertzepzioa, goi-mailako kirolari estatusak eskatzen duen jarrera, exijentzia eta portaerarekin talka egiten duten rol, estereotipo eta balio hauek barneratzetik dator. Bestetik, kontuan hartu behar da goi mailan dauden emakume kirolariak askotan ez direla konturatzen bidean aurkitu izan dituzten oztopoetaz, hain zuzen, laguntza gehien jaso duten emakume kirolariak direlako.

Nahiz eta ikerketa honetan antzeman diren traba ugari Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzaren eskumenen eremutik kanpo egon, berdintasuna bultzatzeko hainbat neurri proposa genitzake, esaterako: Kirola eta berdintasunaren inguruan EAEn dagoen legedia gehiago garatuz eta hobeto ezarriz. Era berean, neurri hauek, federazioek burututako kudeaketa eta eskaintzaren hobekuntzari begirakoak esaterako, behe-mailako kirol egituretan *domino efektu* bat eragin dezakete.

Hautzaro edo gaztarotik hasita, *Fundazioko* goi-mailako emakume kirolariek argi dute kirola eta ikasketak uztartu behar dituztela etorkizuna bideratze aldera. Hala eta guztiz ere, *Fundazioak* lagun diezaiekeela uste dute, trebakuntzen bidez eta lan munduan errazago sartze aldera erakunde eta enpresekin harremanetan jarritz. Era berean, eta kirolariek ikasketak eta goi-mailako kirol jarduna uztartzeko dituzten arazoez jabetuta, Unibertsitatearekin nola jardun finkatuko lukeen protokoloa zehaztu beharko litzateke.

Ikerketa guztian zehar argi geratu da arlo ekonomikoari dagokionez emakume kirolariek duten ardura, bai kirolaren profesionalizazio eta babesle falta dela-eta, bai lesio larriren bat jasatean edo ama izatean sufritu dezaketen babesik eza dela-eta. *Fundazioa* zein Eusko jaurlaritzak jada ari da arazo honi aurre egiten, esaterako, bekaren luzapena onartuaz lesio larriengatik edo haurdunaldiagatik.

Etorkizunean, bai goi-mailako kirolari, bai entrenatzaile eta bai epaile edo kirol arloko kudeatzaile izan daitezen duten eredu eza ere, aipatu beharreko beste garrantzizko alderdi bat da.

Amaitzeko, ikerketa hau berritzailea dela esan beharra dago, izan ere, Fasting eta Knorr-en (2005) eta Fasting eta besteren (2000) lanez gain, ikerketa gutxi baitago genero ikuspuntutik eta izaera kualitatiboko goi-mailako emakume kirolariek haien kirol ibilbidean zehar, eta baita gaur egunean ere, jasaten dituzten oztopoak aztertzen dituzten. Horrela ba, gutxi zapalduetako eta sasiz betetako bidezidor bat zabalduta izateko aukera bat izan liteke hau, kirol esparru justu eta berdintasunezko bat lortzeko bidea argitze aldera.

8. EKINTZA-NEURRIAK

Legedia

- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, aplikatuko dela bermatuko duten bitartekoak ezartzea⁴⁴, eta sexu ikuspuntutik baztertzailleak diren kirol ekintzak diruz ez laguntzea.
 - Federazioei, Euskal Herriko Kirol Federazioen 16/2006 Dekretuan, urtarrilaren 31koan, azaltzen diren arauak bete ditzaten eskatzea⁴⁵, baita egituretan -eta hauek eta hauei lotutako klubek egiten dituzten eskaintzetan- emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatze aldera hartu beharreko neurriak garatzeko galdegitea (lehiaketetarako araudiak, baliabide ekonomikoen, materialen -ordutegiak, instalazioak, ekipamenduak- eta giza-baliabideen banaketa; komunikazio ez sexista, etab.
 - Federazioei, urteko aurrekontuaren genero-eragina azaldu dezaten eskatzea.

⁴⁴ 4/2005 Legeak, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak honako hau dio: *“Euskal aginte publikoek ezin izango dute inolako diru-laguntza edo laguntzarik eman sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duen edonolako jardueratarako; neurri egokiak hartu behar dituzte kirol-modalitate guztietan emakumeek eta gizonen tratu- eta aukera-berdintasuna izango dutela bermatzeko; emakumeen nahiz gizonen kirol-jarduerei laguntzea sustatuko dute...”*.

⁴⁵ Euskal Herriko Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 169. artikulua honako hau dio: *“Kirol federazioek dagozkien babes administrazioek ezartzen dituzten epeetan eta baldintzetan behar dituzte emakumezkoen eta gizonzkoen arteko berdintasunaren aldeko ekintza positiboaren planak taxutu, onartu eta gauzatu, federazioaren kudeaketan bertan eta kirol modalitate bakoitzean, gutxika, emakumezkoen eta gizonzkoen arteko berdintasuna bermatze aldera”*.

- 203/2010 Dekretua, uztailaren 20koa, Goi Mailako Kirolari buruzkoa garatzea ikasketa akademikoei dagokionez⁴⁶, kirolariek bi gauzak uztartzea ahalbidetzeko.

Trebakuntza

- Goi-mailako kirolari unibertsitarioak laguntzeko programan Unibertsitatearen parte-hartzea arautzen duen Ebazpenaren⁴⁷ edukiak berraztertu.
- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziekin zerikusia duten trebakuntzen edukietan genero ikuspegia sartu (Kirolaren Euskal Eskolak eta *Fundazioak* emandako trebakuntza ikastaroetan ere bai).
- Euskal Herriko kirol federazioek antolatutako trebakuntza ekintzen (epaile zein teknikarien trebakuntza ikastaroak) edukien programan genero ikuspegia sartzeko exijitu.
- Goi-mailako kiroleko arloko estamentu ezberdinei (zuzendari, teknikari eta kirolari) berdintasuneko gaitan trebatu.

Babesleak

- Emakumezko goi-mailako kirolariak babesten dituzten enpresei laguntza fiskalak ezarri. Baita gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen duten federazio eta klubei ere.

⁴⁶ 203/2010 Dekretuak, uztailaren 20koa, Goi Mailako Kirolari buruzkoa, dio: “*Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailak ekintzak eta ekimenak sustatuko ditu eta beharrezko hitzarmenak eta protokoloak izenpetuko ditu hzekuntza-esparruko erakunde pribatu eta publikoekin, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko goi-mailako kirolari, teknikari eta epaile guztiek bateragarri egin ditzaten kirola eta jarduera akademikoa*”.

⁴⁷ 2009ko irailaren 28ko ebazpena, goi-mailako kirolari unibertsitarioak laguntzeko 2009 urteari dagokion programan, UPV/EHUren parte-hartzea onartzen duena.

Fundazioko zerbitzuak

- *Fundazioko* goi-mailako emakume kirolarien irudia zabaltzen jarraitu eta are gehiago indartu (iragarkiak, kartelak, web orrialdeak, etab.).
- Haien irudia sustatzen eta sendotzen lagundu kirolariei, babesle partikularrak errazago aurkitze aldera.
- *Fundazioko* kirolariei aholkularitza eskaintza indartu, ikasketa akademiko, lan-orientazio eta orientazio profesionalaren gain.
- *Fundazioko* kirolariak lan munduan sartzeko mekanismoak ezarri.
- Laguntza psikologikoa eskaintzen duen zerbitzua badagoela jakitera eman *Fundazioaren* beka duten kirolariei.

Etorkizunerako ikerketa ildoak

- Errendimenduko kirola egiten duten eta goi-mailako kirolari izateko potentzial egiaztatua duten emakumeak goi-mailara ez iristeko eragina duten faktoreak ezagutzea.

9. BIBLIOGRAFIA

Alonso-Arbiol, I., Azurmendi, A., eta Cuadrado, I. (2009). *EAEko kirol federazioetako eta taldeetako emakumezko lehendakarien gestiogintza aztertuz* [Análisis de las mujeres presidentas de federaciones y clubes deportivos del País Vasco]. I. Alonso-Arbiol eta M. Gallarin (Eds.) *Generoa aztergai psikologian: egungo ikerketak* [El género en Psicología a debate: Investigaciones actuales]. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

Avento Consultoría (2005). *Ermuako udalerriko Kirol arloan emakume eta gizonen egoeraren Diagnostikoa*. Ermuako Udalarentzat eginiko lana.

Azurmendi, A. (2005). *Repercusión de la actividad institucional en la práctica deportiva de las mujeres en la CAE*. Andoain: Leizaran Grafikak.

Azurmendi, A. (2009). Zergatik uzten diote emakumeek kirola egiteari? Eragiten duten aldagai psikosozialak [Factores psicosociales relacionados con el abandono de la práctica deportiva de las mujeres]. I. Alonso-Arbiol eta M. Gallarin (Eds.) *Generoa aztergai psikologian: egungo ikerketak* [El género en Psicología a debate: Investigaciones actuales]. Bilbao: Udako Euskal Unibertsitatea.

Buceta, J.M. (2004). *Estrategias psicológicas para entrenadores de deportistas jóvenes*. Madrid: Dykinson-Psicología.

Christensen, K., Guttman, A. eta Pfister, G. (2000). *International Encyclopedia of women and sports*, 3, 1072 eta 1299. New York: Gale Group.

Díez, C. eta Guisasola, R. (2002). *Proyecto Itxaso: Estudio de las causas del abandono de la práctica deportiva en las jóvenes de doce a dieciocho años y propuestas de intervención*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia eta Kirolarte.

Eusko Jaurlaritz-Gobierno Vasco (Azurmendi, A. eta Elduaen, M.) (2007). *Kirolean berdintasunerako komunikazio Gida*. Vitoria-Gasteiz: EJ-GV.

Fasting, K., Scraton, S., Pfister, G., Vázquez, B. eta Buñuel, A. (2000). *Experiencia y significado del ejercicio físico en la vida de las mujeres de algunos países europeos*. Madrid: Emakumearen Institutua. Serie Estudios, 66.

Fasting, K. eta Knorre, N. (2005). *Women un Sport in the Czech Republic. The Experiences of Female Athletes*. Oslo & Praha: Norwegian School of Sport Ciences and Czech Olympic Cometeet.

Fontecha, M. (2003). Coeducación en el deporte: un objetivo aún lejano. *Emakunde Aldizkaria*, ¿El fútbol es cosa de hombres?, 51, 10-13.

Fontecha, M. (2008). ¿Hay deporte para chicas y deporte para chicos? *Galdakaoko udaleko 5. Berdintasunaren Udal Jardunladiak*: “Kirolean berdintasuna praktiatuz”, Galdakao, azaroa.

González, A. M. eta Otero, M. (2005). Actitudes de los padres ante la promoción de la actividad física y deportiva de las chicas en edad escolar. *Cuadernos de psicología del deporte*, 5, 1-2.

Lasarte, M. (2007). ¿El deporte masculiniza? *Emakunde aldizkaria*, Mitos y prejuicios, Lo que queda por cambiar, 68, 32-34.

Moreno, J. A. eta Martínez, C. (2006). Actitudes hacia la práctica físico-deportiva según el sexo del practicante. *Revista Internacional de Ciencias del Deporte*, II, 3, 20-43.

Puig, N. eta Soler, S. (2004). Mujer y deporte en España: estado de la cuestión y propuesta interpretativa. *Apuntes de Educación Física y Deportes*, 76, 71-78.

Kontsultatutako legea

4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen Berdintasunerakoa (EHAA 42. zbkia., 2005eko martxoak 2).

16/2006 Dekretua, urtarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol Federazioena (EHAA 31. zbkia., 2006ko otsailak 14).

Agindua, 2008ko urtarrilaren 28koa, euskal kirol federazioen eta lurralde federazioen hauteskunde-erregelamenduak prestatzeko eta hauteskundeak egiteko irizpideak finkatzen dituen (EHAA 30. zbkia., 2008ko otsailak 12).

125/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa, Eskolako Kirolari buruzkoa (EHAA 135. zbkia., 2008ko uztailak 16).

Ebazpena, 2009ko irailaren 28koa, 2009 urteari dagokion goi-mailako unibertsitate-kirolariak laguntzeko programan EHUren parte-hartzea baimentzen duena (EHAA 206. zbkia., 2009ko urriak 27).

Iragarkia, Goi-mailako kirolari bekak emateko oinarriei buruzkoa, 2010 urterako Fundación Euskadi Kirola Fundazioak emanak (EHAA 33. zkoa., 2010eko otsailak 18).

203/2010 Dekretua, uztailaren 20koa, Goi Mailako Kirolari buruzkoa (EHAA 160. zbkia., 2010eko abuztuak 20).

Kontsultatutako web orriak

http://ausport.gov.au/participating/career_and_education

www.basqueteam.com

www.emakunde.euskadi.net

www.eustat.es

www.laboris.net/static/ca_carrera_impulso-cambiar.aspx